

anboto

EZPATADANTZARI EGUNA

Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna zapatu honetan Zornotzan / 6

Eskualdeko hamar taldek parte hartuko dute. Dantzariak 17:30ean irtengo dira kalejiran, Zelaietatik



Zornotzako dantzariak, iaz, Mallabian, Ezpatadantzari Egunean. LUCIA MERUELO

MUSIKA

Durangoko BBK Live Herrian jaialdian Olatz Salvador, Los Fresones Rebeldes, Gar eta Kiliki izango dira / 4

ANTZERKIA

Ikasleek antzezlan bihurtu dituzte gerrako umeen bizitzak / 20

Lurretako Juan Orobiogoitiako eta Durangoko institutuko gazteek Loraldia jaialdian parte hartuko dute



DURANGOKO INSTITUTUA

TRAÑA-MATIENAKO JAIK / 13



DANTZA

Dantzaren Egunean 600 dantzari batuko ditu Landako Gunean / 4



L'Atelier dantza eskolako kideetarikoz batzuk.



"Testigantzak dira liburuko edukirik mamitsuena. Barrua mugitzen duten horietarikoak dira"

Jesus Mari Arruabarrenak '1936ko gerraren oihartzuna.

Abadiñarren testigantzak' liburua idatzi du.

Ikerketa lan kolektibo baten emaitza da.

Atzo aurkeztu zuten eta dagoeneko eskuragarri dago Interneten zein hainbat establezimendutan. / 2-3

"Abadiñon hamalau egunetan izan ziren bonbardaketak"

JESUS MARI ARRUABARRENA GASTELURRUTIA
LIBURUAREN IDAZLEA

Arruabarrenak '1936ko gerraren oihartzuna. Abadiñarren testigantzak' liburua idatzi du

Joseba Derteano ABADIÑO

Gerediaga Elkarteak Abadiñoako Udalaren babesagaz ondutako 1936ko gerraren oihartzuna. Abadiñarren testigantzak liburua aurkeztu zuten atzo Errota kultur etxean. Liburuak Abadiñon 1936ko altxamendu faxistak eta ondorengo gerrak izan zuten eragina jasotzen du. Jesus Mari Arruabarrenak (Durango, 1964) idatzi du, baina urte biko ikerketa prozesu kolektibo baten emaitza da. Liburuak artxiboetako datuak eta herritarren testigantzak uztartzen ditu, urte luzez isilean egon diren istorioak argitara ateratzeko. Testigantza horietariko batzuk ikusgai daude garaia.gerediaga.eus webgunean, eta liburua dagoeneko salgai dago Abadiñoako Estankoan eta Petite kioskoan, eta Durangoko Arteka, Etxebarria, Hitz eta Urrike liburu dendetan. Internetez ere erosi daitezke, Elkarren webgunearen bitartez.

Abadiñon 1936ko gerraren memoria historikoa sakonean aztertzen den lehenengo aldia da. Zer hutsune zegoen orain arte eta liburuak zer ekarpen egiten dio Abadiñoako memoria kolektiboari?

Orain arte genuen informazioa oso fragmentatua zen; bakoitzak bere oroitzapen partikularrak zituen. Orain, 40 bat lagun elkarrizketatuta eta artxiboetan arakatuta, osotasun bat eman diogu, puzzle antzeko bat osatu dugula esango nuke. Hutsuneak bete ditugu.

Zelan egituratu duzu liburua?

Hitzaurre batez hasten da. Ondoren, testu nagusia dator, hainbat ataletan banatuta: gerraren aurretik zein zen egoera, gerraren hasiera eta bilakaera, eta gerraostea. Amaierako azken atal batean, Jimi Jimenez historialariak gerragaz zerikusia izan zuten abadiñarren zerrendak osatu ditu. Tipologiaren arabera sailkatuta daude: guda-ri eta milizianoak, epaituak, errefuxiatuak, fusilatuak... Atal horren hasieran QR kode bat dago eta horren bitartez pertsona horien guztien biografia laburrak ezagutu daitezke.

Liburua zuek idatzi duzu, baina talde lanaren ondorioa da. Nortzuek parte hartu dute?

Elkarrizketak egiten eta testigantzak jasotzen, nitaz aparte, Markel Onaindia eta Andoni Barreña aritu dira. Beste alde batetik, Jimi Jimenez artxiborik artxibo ibili da informazioa baten; Marta Calvok bere ekarpena egin du Auxilio Socialari buruzko azterketagaz. Eta hitzaurrea Mila Salterainen eta Luis Berrizbeitiaren artean idatzi dute.

Testigantzek pisu handia dute liburuan.

Testigantzak dira liburuko edukirik mamitsuena; barrua mugitzen duten horietakoak dira. Hurbiltasuna ematen diote testuari eta sentimendu asko islatzen dira: askotan, mina, eta borrokatzeko grina ere bai ba-



Jesus Mari Arruabarrena. PATXI GRANADO

tzuetan. Elkarrizketa asko orain egin ditugu. Batzuk bizirik zeuden gerra sasoiaren, Nieves Iturriagoitia kasurako. Urte bi inguru zituen orduan. Beste testigantza batzuk oinordekoei eskerrak jaso ditugu. Elkarrizketa batzuk 90eko hamarkada inguruan egindakoak dira eta libururako aprobetxatu ditugu. Jakina, garai hartan errazagoa zen gerra ezagutu zutenak bilatzea. 'Ahotsak' webgunean jasota zeuden testigantzak ere erabili ditugu.

Gerra ezagutu zutenen testigantza askok ezaugarri on bat dute: dakitena zehazki kontatzen dutela. Hau da, gerra bizi arren, umeak edo gaztetxoak ziren orduan, ez ziren oso kontziente gertatzen zenaz, eta gurasoengandik jaso dute ordukoaren berri. Oso aspaldiko oroitzapenak dira. Eta zehazki komeni denean, horrela jokatu dute, gauzak modu kategorikoan esan beharrean. Horrek fidagarritasuna ematen die lekukotzei. **Bigarren belaunaldiko testigantzen kasuan, zer nabarmenduko zenuke?** Denerik dago. Familia batzuetan beste batzuetan baino hobeto gorde da memoria. Kasu askotan

gertatzen dena da familietan berba gutxi egin dela gerraren inguruan. Satur Urienena da orain burura datorikidan kasu bat. Bost bat kartzelatetik igaro zen. Bere iloba Jon Urienek kontatzen du aititik ez zuela barbarik egiten horretaz, harik eta azken urteetan lehertu eta barrua husten hasi zen arte. Orduan hasi zen berbetan. Familia batzuetan oso ondo gorde dute oroimena; iturraldetarren familian, esaterako. Agiriak dituzte, eta askotariko informazioa. Beste kasu bat da gerra



Liburuko azala.

aurretik Abadiñoako alkate nazionalista izandako Sotero Badaia familiaren kasua. Badakite Ezkaban egon zela preso, ihes egin zuela, eta berriro harrapatu eta epaitu zutela. Urte askotako kartzela zigorra ezarri zioten. Familia hori Ezkabara joaten da oraindino. Orain urte dezentekin egin nuen beste elkarrizketa mamitsu bat Abarketerueneko Edurnerena da. Gerran gaztetxoak zen, baina orduko gertakizunak fidelotasun handiz gorde zituen. **Emango dizkiguzu testigantzen adibide batzuk?**

Gerran familia bereko kideak kontrako bandoetan ibili ziren askotan. Horixe da, esaterako, Kazintto eta Martin Iturralde anaiei kasua. Altxamendua gertatu zenean, Kazintto Lizarran zegoen soldadutza egiten eta une horretan matxinatuen aldeko tokietan zeudenek derrigorrez Francoren alde borrokatu behar izan zuten. Martin anaia, ostera, Abadiñon zegoen eta gudariek in joan zen gerrara.

Libururako egindako ikerketari eskerrak informazio berriak plazaratu dira. Datu berri horietatik zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Bat da Abadiño hamalau bider bonbardatu zutela; hau da, Abadiño 14 egunetan izan ziren bonbardaketak. Prentsan inoiz irakurri dugu "Abadiñoako bonbardaketa", baina ez zen bakarra izan. Urkiola bost bider bonbardatu zuten, eta Saibi lau bider, 1937ko apirillean. Horrez gainera, Lebario, Arteagabaso, Amaitermin, Muntzaratz eta Aingeru Goardako ermitaren ondoan dagoen Atzatei baserrira ere jaurti zituzten bonbak. Horrek ez du esan gura toki guztietan hegazkinetatik bonba asko bota zituztenik. Lebarion bonba bat bota zuten, beharbada beste herriren batera bonbardatzera bidean. Muntzaratzen ere bonba bat jausi zen, Aldekoarre baserrian.

Bonbardaketa gehienek Gogora Institutuko *Atlas de bombardeos de Euskadi* izan da iturri nagusia. Besteren batean, Atzateikoan esaterako, lekukoek esandakoak udaleko agiritan edo aktetan baieztatu ahal izan ditugu.

Ikerketak bonbardaketako biktimen inguruko akats batzuk zuzentzeko ere balio izan du.

Bai. Durangoko bonbardaketan hildakoen kopurua zehazteko 2024an egindako ikerketa batean, lau kasu agertu ziren dokumen-

tuetan 'Abadiñoako bonbardaketan hildakoak' izendatuta. Prentsan ere horrela agertu zen. Orain, ikerketa berriari eskerrak eta informazioa senideekin kontrastatuta, seguru dakigu hori ez dela horrela. Paula Maiztegi eta Teadora Arietaraunabeña jatorriz abadiñarrak izan arren, gazteluarrak hain zuzen ere, Durangoko bonbardaketan hil zituzten. Kontrara, Antonio Garaigordobil ez zen hil Durangoko bonbardaketan. Amaiterminen bizi zen eta hantxe hil zen, Amaitermin bonbardatu zuten egunean. Azkenik, Estefana Aguirreren inguruko daturik ez dugu, zoritxarrez.

Zer beste datu nabarmendu daiteke?

Abadiñar batzuen istorioak ezagunak dira, hau edo bestea fusilatuta hil zela, baina beste batzuei buruz ez da askorik jakin izan. Horixe da Jose Maria Anguloren kasua. *Comite de Defensa*-ko presidentea izan zen eta frankistek Derioko kanposantuan fusilatu zuten.

Kartzeletan egondakoen kalbarioak ere jaso ditugu. Hamazazpi presoren berri ematen dugu, euren istorioa laburrago edo luzeago kontatuz, baina badakigu hauek baino askoz gehiago izan zirela. Batzuk kontzentrazio esparruetan ere egon ziren; esaterako, Nicolas Itsaso eta Jose Aguirre San Ciprien, Frantzian. Eusebio Urien, Gurseko kontzentrazio esparruan egon zen.



Naziak Gerediaga auzoan. PABLO SAGARRA RENEDEO, OSCAR GONZÁLEZ LÓPEZ ETA LUCAS MOLINA FRANCO 'GUDARIS. EUZKO GUDAROSTEA DURANTE LA GUERRA CIVIL, 1936-1937'.

Asko esaten duten argazkiak

Liburua esku artean hartzen duenak lehenengo begiratuan igarriko du argazkiek pisu handia dutela kontakizuna osatzeko. Liburutegi nazionalan, herriko artxiboan zein familia bakoitzeko artxibo pertsonaletan arakatzuz, argazkiak bilatzen "ahalegin handia" egin dutela dio Arruabarrenak.

Lan horri eskerrak, goiko argazkia lako *harribitxiak* lortu dituzte. Irudian naziak ikusten dira Gerediaga auzoan, Orue baserriaren ondoan. Liburuak Teresa Bengoaren eta Mari Paz Elorriagaren arteko solasaldia jasotzen du, militar arrotzak berbagai zituztela. "*Akordetan haz alemanak sartu ziela gurien [Gerediagan], etxe ganien? Eta zelako tankiek euki abiezan*", gogoratzen du Bengoak. "*Bai. Horregaz akordetan non. Gerixako baso guztidxe zera dxauenan... alemanakaz*", erantzuten dio Elorriagak.

Pontxioneko Jose Marik ere gogoan du aitak aipatu ziola alemanak egon zirela herrian. Soldadu naziek elizpean prestatzen zuten "arrantxoa" eta militar galoidunek eliza ondoko abadetxean hartu zuten ostatu.

Josu Munitxak ere baditu berbagai alemanak, bere amaginarreba Miren Azkorbebeitiaren lekukotza gogoratuta. "Eurentzat [alemanentzat] kafe egin biher zan eskatzien. Sartzen zien jaun eta jabe zien moduen", dio Munitxak.

Ezkutuko istorioak argitara

Liburuko kontakizun nagusiko atal bat fusilatuen inguruko da. Abadiñar fusilatuen inguruko istorio batzuk ezagunak dira herrian, baina beste batzuen inguruan ezer gutxi ezagutzen zen. Jose Maria Angulo azken multzo horretan sartu daiteke. Liburuak bere eta gerran fusilatutako abadiñar gehiagoren gainean sakontzen du.

Angulo durangarra Urkiolan ezkondu zen, Asunción Torrontegigaz, eta ondoren Abadiñora joan zen bizitzera. Delineantea zen ogibidez.

Angulo Derioko kanposantuan fusilatu zuten, 1937ko abuztuaren 5ean. Liburuan jasotzen denez, gerra aurretik Abadiñoako alkate izandako Sotero Badaiak sarritan esan ei zion

kontuz ibiltzeko eta ezkutatzeko frankistengandik.

Liburuan, Josebak, Jose Mari Anguloren semeak, aitaren aurkako epaiketa justifikatzeko *La Gaceta del Norte* egunkariak 1937ko uztailaren 22an argitaratutako albiste berreskuratzen duela azaltzen da. Albistean, Angulo "*separatista exaltado*" legez aurkezten dute eta herriko ekimen iraultzaile guztietan parte hartu zuela aipatzen da: ["*intervino en todas las actividades revolucionarias en el pueblo*"].

Josebak kontaktzen duenez, aitaren gorpua Derioko kanposantuko hobi komun

batera bota zuten fusilatu eta gero. Gorpua Josebaren aitita Federico Torrontegik aurkitu zuen, fusilamendu haien berri jaso eta gero. Kanposantura joan, gorpua atera eta angulotarren Derioko panteoi batean ehortzi zuten. Handik urte batzuetara panteoitik atera eta Durangoko kanposantura ekarri zituzten gorpuzkiak. Orduan ikusi zuten tiro-zulo bat zeukala buruan.



Jose Maria Angulo. FAMILIAK UTZITA



AURRE- MATRIKULA

MAIATZAK 4tik 22ra



**UNI
EIBAR
ERMUA**

Otaola Hiribidea, 29
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
idazkaritza@uni.eus
www.uni.eus
@uni.eus



**ELKARO JAIHARRITZA
GOBERNO BASCO**

HEGALATZA-BALIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



MERKATARITZA



ADMINISTRAZIO
ETA
KUDEAKETA



JARDUERA
FISIKOAK
ETA KIROLAK



INFORMATIKA
ETA
KOMUNIKAZIOAK

IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA

IZENA EMAN EDO DEITU

📞 943 89 92 11 www.uni.eus



Olatz Salvador, GAR, Kiliki eta Pi L T Durangoko 'Herrian' jaialdian izango dira

Maiatzaren 30ean egingo dute jaialdia, eguerditik gauera, hiru parketan

Ekaitz Herrera DURANGO

BBK Live jaialdi erraldoiaren ahaide txikiak, *Herrian* festibala, Durangon lur hartuko du maiatzaren 30ean. Asteon, Durangoko udal arduradunek eta festibalaren antolatzaileek zeintzuk artistak joko duten argitu dute. Etxeko taldeen artean, Gar (Durango), Amaiurtxu (Durango) eta Heitxi (Zornotza) egongo dira. Euskal Herriko taldeen artean, Kiliki, Pi L T, Eider eta Olatz Salvador, eta atzerrik ailegatuko direnen artean, Mujeres rock talde espainiarra, rap estiloko Santa Salut, Los Fresones Rebeldes indie klasikoak, Wau y los Arrrghs!!! taldearen doinu 'garajero'-ak, Mala Gestión valentziarrak, Mississippi Queen & The Wet Dogs soul taldea eta Oslo Ovnes post hardcore taldea. Festibalak hiru agertoki izango ditu Durangoko kaleetan. Ibai-



Olatz Salvador eta bere taldea izango dira jaialdiko artistetako batzuk. OLATZ SALVADOR

zabal, Benita Uribarrena eta Ezkurdi parkeetan egingo dituzte kontzertuak. Orduetgia ere zehaztu dute: jaialdia 13:00etatik 23:00etara egingo da.

Mireia Elkoroiribe alkateak adierazi du "harrotasunez" ja-

sotzeko moduko egitasmoa dela. "BBK Live jaialdiaren atariko Durangon egitea zoragarria da. Herritar guztientzat dago zabalik, eta kohesio sozialean eragingo du", esan du. Nora Sarasola BBKko Gizarte Ekintzako

zuzendariak gogorarazi duenez, Bilboko jaialdiak 20. urteurrena betekiko du aurten, eta 2023an hasitako bideari jarraituko dio aurten ere, "jaialdiaren esentzia Bizkaiko gainerako udalerrietara zabalduta". Last Tour enpresa sustatzaileko Paloma Ortek azpimarratu du jaialdia "gertukotasunezko kultura sortzeko era bat" dela, eta gaineratu du kontzertuak debalde eskainiko dituztela.

Bilboko atariko

BBK Live jaialdiaren edizio nagusia uztailearen 9tik 11ra egingo dute Bilboko Kobetamendin. Aurten joko duten taldeen artean Calvin Harris, Robbie Williams, David Byrne, Dellafuente, Lily Allen, IDLES, FKA twigs, Interpol eta Charlotte de Witte taldeak daude.

Jaialdiak hiru agertoki izango ditu: Ezkurdi, Benita Uribarrena eta Ibaizabal parkeak

Mireia Elkoroiribe izango da Durangoko EAJren alkategaia



Mireia Elkoroiribe. DURANGOKO EAJ

Jone Guenetxea DURANGO

Durangoko EAJk egungo alkatea hautatu du berriro, gehiengo osoz, 2027ko maiatzeko hauteskundeetan jeltzaleen zerrendaburu izateko. Elkoroiribe hirugarrenez aurkeztuko da alkategaia. "Ilusioz" hartu du hautagai-tza eta "legealdi honetan martxan dauden proiektuak bultzatzen" jarraitzeko asmoa agertu du, "oraindino lan handia dagoelako egiteko". Jeltzaleen lemazainak durangarren bizi kalitatea hobetzen segitu gura du, "konpromisoz, ilusioz, konfiantzaz eta gertutasunez".

Dantzaren Egunak 600 dantzari gora batuko ditu Landako Gunean

Zapatuan egingo dute ospakizuna, 10:00etan hasita. L'Atelier eskolako komunitate osoak parte hartuko du

Ekaitz Herrera DURANGO

Landako Guneak Dantzaren Eguna hartuko du zapatu honetan. Egun osoko ekitaldia izango da, L'Atelier eskolako 600 dantzari baino gehiago batuko dituen eta dantza eskolako kideen urte osoko lana jendaurrean aurkezteko balioko duena. Ekintzak 10:00etan hasiko dituzte, umeentzako tailerrekin, eta 11:00etan ekingo diete dantza saioei, ballet erakustaldiaz. 15:00etan bingoa egingo dute, eta behin hori amaituta, 15:45 aldera, dantza modernoak, urbanoak eta garaikideak taularatuko dituzte. Eguna swing tailer zabal batez amaituko dute, 20:00etan. Oiane Azkonizaga L'Atelier eskolako arduradunak azpimarratu duenez, Dantzaren Eguna "urteko hitzordurik garrantzitsuen" da eskolarentzat. "Eskolako kide guztiek parte hartzen dute egun horretan. Egun

ederra izaten da", azaldu du irakasleak. Era berean, Dantzaren Eguna eskolako kideentzat bakarrik barik, herritar guztiei zabalduta dagoela gaineratu du.

Koreo dantza elkarte

Dantzez gainera, ospakizunetarako tartea ere hartuko dute. Izan ere, 13:30ean herri bazkaria egingo dute Landako Gunean bertan. Baturiko dirua Koreo dantza elkarteari laguntzeko erabiliko dute, dantza lehiaketetan parte hartzen duen taldeei laguntzeko, hain zuzen ere. Era berean, txosna bat ere egongo da, baturiko dirua dantza elkarte horretara bideratzeko. Paule Sanchez zinegotziak Dantzaren Eguna bertaratzera deitu ditu durangar guztiak: "Dantzaren Eguna aukera bikaina da gure aniztasun kulturala eta artistikoa ospatzeko", esan du.

'Itzali eta piztu' saioak bertsoak eta musika elektronikoa batuko ditu

Ekaitz Herrera DURANGO

Itxura batean, bertsolaritza eta musika elektronikoa oso mundu desberdin bitako adierazpenak izan daitezke, baina, pentsatu daitekeenaren kontrara, bariku honetan saio bat egingo dute mundu horiek biak batzeko: *Itzali eta Piztu* bertso saio elektronikoa. Emanaldia gaur egingo dute, apirilak 24, Plateruenean,

20:00etan. Bertan, Manex Pagola eta Aner Peritz musikariak ari tuko dira, Nerea Ibarzabal, Aroa Arrizubieta, Miren Artetxe eta Ekhiñe Zapiain bertsolariekin batera, Ainhoa Urien gidari dutela. Bertsolariek doinutegi berri batez inprobisatuko dute, reggaettoa, cumbia zein popa oinarri. Eta, jakina, baita autotunea erabilita ere.



'Itzali eta piztu' bertso saioaren emanaldi bat, Deban. BERTSOA.EUS

Bartolome Ertzilla Orkestra Sinfonikoaren kontzertua, gaur

E.H. DURANGO

Barikuan, apirilak 24, Bartolome Ertzilla Orkestra Sinfonikoak bere bigarren kontzertua emango du Durangoko San Agustin Kultur Gunean, 19:00etan. Emanaldia Bartolome Ertzilla Musika Eskolak eta Kontserbatorio Profesionalak antolatuta dute, iaz hasitako proiektu sinfonikoa sendotzeko helburuz. 11 urtetik gorako 45 bat ikasleek parte hartuko dute, irakasleekin eta ikasle ohiekin batera.

Irati Ortubiak zuzenduko du taldea. Errepertorioari dagokionez, orkestrarako hainbat obra interpretatuko dute; tartean, Ander Ertzilla kompositore durangarrak idatzitako lan baten estreinaldia izango da entzunean.

Sarrera doakoa den arren, beharrezkoa da gonbidapena izatea. Gonbidapen horiek Musika Eskolan jaso daitezke, edo kontzertuaren egunean bertan, San Agustin Kulturunean.



Iaz, herriko plaza jendez bete zen jaien hasiera ekitaldian. ZALDIBARKO UDALA

Zaldibarko jaietako kartel lehiaketa, maiatzaren 14ra arte zabalik

Ekaitz Herrera ZALDIBAR
Zaldibarko Udala jaiak iragar-
tzeko kartel ofizialaren bila hasi
da. Interesdunek maiatzaren
14ra arteko epea dute lanak aur-
kezteko. Gaia eta diseinua libreak
izango dira, baina sorkuntzek
derrigorrezko testu bat izan
beharko dute ezinbestean:
“2026ko Zaldibarko Jaiak”. Sor-
tzaile bakoitzak kartel bakarra
aurkeztu ahal izango du.

Diseinuok era fisikoan zein
digitalean aurkeztu daitezke.
Paperean aurkeztea gura dutenek
gutunazal itxian entregatu behar-
ko dute lana, udalaren bulego-
tan, *2026ko Zaldibarko Jaiak*
lelopean eta egilearen adina
zehaztuta. Barrualdean, beste

gutunazal itxi batean, egilearen
izen-abizenak, bizilekua eta hel-
bidea zehaztu beharko dituzte.
Kartela euskarri digitalean aur-
keztea gurago dutenek *kultura@*
zaldibar.eus helbidera bidali
beharko dute lana.

Sariak

Kartel irabazleak 250 euroko
saria eskuratuko du, eta bigar-
renak 150 eurokoa. Horrez gai-
nera, hirugarren saria ere egon-
go da, 14 urtetik beherako par-
te hartzaileentzat. Azken horrek
100 euroko balioa duen sari
berezia jasoko du, eskudirutan
izan beharrean. Lehiaketarako
oinarriak Zaldibarko Udalaren
atarian kontsultatu daitezke.

Castet Eguna domekan Zaldibarren



CASTET ELKARTEA

E.H. ZALDIBAR

Castet Elkartea 1937ko apirilaren 25ean Santamañezarren jausitako milizianoak gogoratuko ditu domeka honetan. 10:00etan, Santamaña-zarrera igoko dira, udaletxe plaza hasita. Tontorrean argazkia egingo dute. Gero, herrigunera jaitzita, lore eskaintza egingo dute udaletxe pareko monolitoan. Goiza Castet elkartean amaituko dute, *Castet Laguna bazkietza* kanpainaren aurkezpenagaz.

Martinez de Lezea, Zornotzan berbaz

E.H. ZORNOTZA

Liburuaren Nazioarteko Eguna-
ren harira, Zornotzako Udalak
egitarau bat antolatu du berariaz,
lehenengoz. Egunotako jardun-
aldiak apirilaren 29an zarratuko
dituzte, Toti Martinez de Lezea-
ren berbaldiagaz. Larrabetzuarrak
Josune Muñozek gidatuta eman-
go du berbaldia, Zelaietako libu-
rutegian, 18:30ean.



PUBLIERREPORTAJEA



IBON DEL COSO ALONSO | ELORRIO | IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA GRADUA (4. MAILA)
IKASTEN DABIL MONDRAGON UNIBERTSITATEAK ARETXABALETAN DUEN CAMPUSEAN



Mondragon Unibertsitatea
Ikus-entzunezko Komunikazioa
graduako 4. mailan zaude. Zergatik
aukeratu zenuen gradu hau eta
zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Beti gustatu izan zait informazioa
bilatu eta partekatzea. Txikita-
tik Interneteko eduki mota asko
kontsumitu ditut, formatu ez-
berdinetan, eta beti iruditu zait
interesgarria gaur egun dauz-
kagun mezuak bidaltzeko modu
desberdinak. Komunikazioaren
bidez pertsonekin konektatzeko
aukera izatea da gehien erakar-
tzen nauena, eta Mondragon
Unibertsitatea aukeratu nuen
metodologia praktikoagatik,
talde-lanari ematen dion garran-
tziagatik, euskaraz ikasteko
aukeragatik eta dagoen gertu-
tasunagatik.

DJ eta musika munduak eraginik
izan al du gradu hau aukeratzera-
koan?

Bai, neurri handi batean. Gaur
egun artista batek sare sozial
eta kanal ezberdinak erabili
behar ditu bere zaleekin konek-
tatuta egoteko: informazio egu-
neratua emateko, jaialdien datak
jakinarazteko eta komunitatea

zaintzeko. Azkenean, jarraitza-
learekin harreman etengabea
mantentzea da gakoa. Horrek
estrategia sortzera eramaten
zaitu, eduki desberdinak pen-
tsatzera eta mezua modu era-
kargarran lantzera. Hor ikusten
dut lotura zuzena ikus-entzu-
nezko komunikazioarekin.

Nolakoa izan da orain arte bizi izan
duzun esperientzia?

Oso esperientzia aberasgarria
eta exijentea izan da, aldi berean.
Hasieratik, proiektu praktiko
askotan lan egin dugu, eta horrek
asko lagundu dit ikasitakoa bar-
neratzen. Talde-lanak ikuspegi
ezberdinak ezagutzeko aukera
eman dit eta antolaketa zein
erantzukizuna lantzeko balio
izan dit. Giro ona dago, eta ira-
kasleekin dagoen gertutasunak
konfiantza ematen du.

Ikasteko zein metodologia erabiltzen
duzue, oro har?

Proiektuetan oinarritutako me-
todologia erabiltzen dugu. Teo-
ria ikasten dugu, baina bereha-
la aplikatzen dugu lan prakti-
koetan. Taldeka aritzen gara
gehienetan, eta askotan beneta-
ko kasu edo erakundeekin lan
egiten dugu. Horrek lan-mun-
durako prestatzen laguntzen
digu eta egoera errealetera ego-
kitzen ikasten dugu.

Orain Gradu Bukaerako Lanarekin
hasiko zara. Zer proiektu egin behar
duzu eta zer elkarerentzat?

Gradu Bukaerako Lanean mi-
ni-dokumental bat prestatuko
dugu Bilboko Alde Zaharreko
Merkatarien Elkartearekin el-

karlanean, kasu honetan ehun
urtetik gora bete dituzten nego-
zioei ikusgarritasuna emateko.
Dokumentalaren helburua da
denda horien historia, balioa
eta ekarpena azpimarratzea,
tonu itxaropentsua erabiliz. Gaur
egungo azelerazioak, zentrali-
zazioak eta kapitalismo eredu
berriek gero eta zailago egiten
dute horrelako negozioek bizirik
irautea, eta guk indarra eman
nahi diegu, haiek ezagutaraziz
eta jendea animatuz tokiko mer-
kataritzza babestera.

Unibertsitatetik zer da gehien gus-
tutzen zaizuna?

Gehien gustatzen zaidana me-
todologia praktikoa eta giroa
dira. Talde-lanak asko irakasten
du, eta irakasleekin dagoen ger-
tutasunak ikasketa prozesua
errazten du. Gainera, euskaraz
ikasteko aukera niretzat oso
garrantzitsua da, profesionalki
ere euskaraz aritzeko.

Eta, etorkizunari begira, zein asmo
daukazu?

Datorren urtean, marketin di-
gitaleko master bat egiteko asmoa
dut. Uste dut gaur egun online
estrategiek eta kanpainak seku-
lako garrantzia eta irismena
dutela, bereziki belaunaldi ber-
riengan. Enpresa eta produktu
mota guztientzat funtsezko tres-
na dira, eta prestakuntza hori
nire ibilbide profesionalean
aplikatu nahi dut. Gainera, nire
proiektu pertsonalean ere —DJ
eta ekoizle moduan— estrategia
digital sendo bat garatzea ezin-
bestekoa dela uste dut.

Ekaitz Herrera ZORNOTZA

Zornotzako kaleak txilin eta txistu hotsez beteko dira zapatuan, Durangaldeko Ezpatadantzari Egunagaz. Gerediagako, Zornotzako Udaleko eta eskualdeko dantza taldeetako kideek ospakizunaren ezaugarriak jakinarazi zituzten astelehenean. Goiatz Pelaez Gerediagako kideak azaldu zuenez, dantzariak eta txistulariak kalejiran irtengo dira 17:30ean, Zelaietako parketik. Handik Zezilia Gallartzagaitia kalera joango dira, herriguneko kaleak zeharkatuta. Azkenik, udaletxeko plazara helduko dira. Bertan, 18:00etan, dantzariak Dantzari Dantza osoa egingo dute, Agintarienagaz hasi eta Txotxongiloagaz amaituta. Ondoren, erregelak dantzatuko dituzte. Eta jaiari behar den moduko amaiera emateko, 20:30ean hasita, Kitu taldeak herriguneko inguruak kalejiran girotuko ditu, dantza-potean.

Ainhoa Salterain Zornotzako alkatearen berbetan, "hungigarria eta berezia" izango da zapatukoa, eskualdeko dantzari eguna lehenengoz ailegatuko da-eta Zornotzara. Gainera, ospakizuna oraindino eta bereziagoa izango da,



Asteleheneko prentsaurrekoko argazki bat.

Zornotza Durangaldeko ezpatadantzarien topaleku izango da zapatu honetan

Udalerrak lehenengoz hartuko du Ezpatadantzari Eguna, eskualdeko hamar taldegaz

hain zuzen ere, bertako Udabarri dantza taldeak 60. urteurrena betetzen duelako aurten. "Dantzak erakusten ditugu, baina gure zeregina ere bada herriak emandakoa herriari bueltatzea. Alde horretatik, zapatukoa hitzordu

berezia izango da, eskualdeko dantzari eguna lehenengoz hartzeaz gainera gure taldearen 60. urteurrena ospatzeko ekitaldi bat gehiago delako", esan zuen Udabarri taldeko Igone Idigoras kideak. Goiatz Pelaez Gerediagako

kideak eskualde osoko dantzazaleak gonbidatu ditu zapatuan Zornotzan parte hartzera.

Honako dantza talde hauek arituko dira: Zornotzako Udabarri, Berrizko San Lorenzo eta Iremitiñe, Durangoko Kriskitin

eta Txoritxu Alai, Garaiko dantza taldea, Iurretako dantzariak, Mallabiko Gazte Alai, Mañarikoa Andra Mari eta Otxandioko Urduri. Era berean, txistularien artean, Zornotzako Udazken, Durangaldeko Jaizale eta Otxandioko Kalerik Kale egongo dira.

Bestalde, Unai Esturo dantzari iurretarrak gogoratu zuenez, eskualdeko dantzariak Merinaldeko Dantzari Egunaren bueltan hasi ziren batzen, 1967an. Iurretan egin zuten lehenengo plaza, eta eskualdeko herriak tartekatzen joan ziren ediziorik edizio. "2000. urtetik izurrira arteko urteetan dantzariok izan ginen jaiaren koordinatzaileak, baina 2023an Gerediagari laguntza profesionala eskatu genion, jaiari bultzada berri bat emateko", azaldu zuen Esturok. Zornotzako dantzariak orduantxe batu ziren egitasmora. Goiatz Pelaezek azpimarratu zuenez, zapatukoak eskualdeko tradiziozko dantza erakusteko eta bultzatzeko balioko du: "Globaltasuna espazioa irabazten ari den gizarte honetan, jarraitu dezagun elkarren eskutik lanean, tokiko kultura eta nortasuna plazaren erdira ekartzeko", esan zuen Pelaezek.

Zornotzan Amoreszena familientzako antzerki jaialdia, maiatzaren 22tik 24ra

Hamabi ikuskizun egongo dira ikusgai herriko hainbat espaziotan banatuta

J.D. ZORNOTZA

Zornotzak maiatzaren 22tik 24ra bitartean ospatuko den Amoreszena familiako antzerki jaialdiko egitaraua aurkeztu dute asteon. Jaialdi honek adin guztietako herritarrei zuzendutako antzerki, musika, zirku eta jarduera ludikoak eskainiko ditu, eta kulturaren bitartez sormena eta irudimena bultzatzea izango da bere ardatza.

"Amoreszena jaialdiak beste aukera bat zabaltzen du. Familiak kultura modu hurbilean eta elkarrengatik bizitzeko espazio bat eskainiko du", adierazi zuen eguazteneko aurkezpenean Ainhoa Salterain alkateak. Koldo Bilbao zinegotziak zehaztu zuen jaialdiak herritarren eskaera bati erantzuten diola: "Orain urtebete egindako inkesta batean, familiak eskaera bat egin ziguten euskara eta kultura batzen dituen proiektu

tu gehiago martxan ipintzeko, eta Amoreszena horren ondorioa da".

Askotariko antzezlanak

Guztira, 12 antzezlan edo ikuskizun egongo dira herriko hainbat espaziotan: Herriko plazan,

Zornotza Aretoan, Zelaieta parkean, Andra Mari plazan... Ikuskizunak doakoak dira. Egitarauari buruzko informazio zehatza 'anboto.org' edo 'sarreakzornotzaaretoa.com' atarian jaso daiteke.



Udaleko ordezkariak eta Markeliñe antzerki taldeko kideak aurkezpenean.

Gar taldeak kontzertua joko du gaur iluntzean Berrizko Kultur Etxean

M.Z. BERRIZ

Gar taldeak *Oraina Eskuetan* lana aurkeztuko du gaur, apirilak 24, Berrizko Kultur Etxean. Kontzertua 21:00etan hasiko da eta antolatzaileek jakinarazi dute ezinbestekoa izango dela sarrerara erostea. Sarrerak Kultur Etxean erosi beharko dira. Bazkideek lau euro ordaindu

beharko dute, eta bazkide ez direnek sei.

Gar Jon Garcíaren proiekturik pertsonalena da. Durangarrak 2025ean ezagutarazi zuen bere proiektua, eta urrian Liher Granados, Asier Ardanza eta Martzel Vargas taldekideekin batera *Oraina eskuetan* lana kaleratu zuen. Zortzi abestiz osaturiko lana da.

Talde durangarrak maketa lehiaketa irabazi zuen 2025ean, eta BBK Live jaialdian joko du 2026an.

Atxondoko ludoteka zabalik gaztetxoak hartzeko prest

M.Z. ATXONDO

Urte hasieran, Atxondoko Udalak lehiaketa publiko bat martxan ipini zuen ludoteka zerbitzua kontratatzeko. Sasoi hartan udalak jakinarazi zuenez, aisialdi hezitzailea eta kalitatezkoa bermatzen jarraitzea zen zerbitzuaren asmoa. "Herriko haurrentzat espazio parte-hartzailea eskaini gura

du ludotekagaz", azaldu zuen Atxondoko Udalak.

Dagoeneko espazio hori, Atxondoko Ludoteka, zabalik dago. Zerbitzu honek eguaztenean zabaldu zituen berriro ateak, eta herriko gazteak hartzeko prest dago.

Astean zehar zabalik

Berriro martxan ipini duten zerbitzu hau asteleheneetik eguenera egongo da zabalik, 16:30etik 18:30era. Ludoteka Haur eta Lehen Hezkuntzako umeei zuzenduta egongo da.



OSASUN gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

PODOLOGIA
PSE: 214/06




ONINEN ZAINNTZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

NATUROPATIA
ETA HOMEOPATIA



Aurora Julia

HOMEOPATIA · NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



ODONTOLOGIA
PSE:177/26




DURANGO
Clínica dental · Hortz klinika

ODONTOLOGIA INTEGRATIBOA

Ahotik lortu zure osasuna

Artekale, 37 DURANGO
Tel.: 94 604 14 76
gerencia@clinicadentaldurango.com
www.clinicadentaldurango.com

ODONTOLOGIA
PSE: 26/22



viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzako hortz klinika Durango

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordulegi:
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, B. Oskala
www.clinicadentalviteri.com

ODONTOLOGIA
PSE: 145/13




clínica dental | hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA - INPLANTOLOGIA - KIRURGIA - ORTODONTZIA OHIKOA (DAMÓN) ETA IKUSEZINA - ODONTOPIEDIATRIA - PADI - HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

(Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

OPTOMETRIA
PSE: 162/13



NAIA ZABALA AUZMENDI 11507 kot. ek.



keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA · HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA · JATORRIZKO ERREFLEXUAK · FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA · KIROL IKUSMENA · GARUNEKO LESIOAK · UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 + 48240 Berriz · Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

PSIKOLOGIA



gure
Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen diagnostikoa eta esku-hartzea, diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

PSIKOLOGIA



gure
Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko ·
- Estresa kudeatzeko ·
- Zure harremanak hobetzeko ·

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

613 05 38 62
Andra Mari, 16 1D Durango

FISIOTERAPIA
PSE: 57/16




pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

FISIOTERAPIA
PSE: 119/13




ZAINDUZ
Fisioterapia · Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Saior pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

"Liztor asiarra egiturazko arazo bihurtu da Durangaldean"

Erlezainek eta erakundeek boluntario lanak egitera eta liztor asiarraren kontrako tranpak ipintzera deitu dute

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

"Liztor beltza arazo estruktural bihurtu da Durangaldean, fenomeno puntuala izatetik urrun". Horixe ondorioztatu du argi eta garbi Bizkaiko Erlezainen Elkartearen eta Urkiola Landa Garapenerako elkartearen txostenak: espezie inbaditzaileak goranzko joera ageri du eskualdean, eta iaz jo zuen sabaia, baldintza klimatikoaren eraginez presentzia "nabarmen" handituta. Baina ez hori bakarrik. Txostenak agertu duenez, liztorra ingurune urbanotara zabaltzen dabil. Eraikinetan

hasi da habiak egiten, eta, horrenbestez, gatxago egiten du egoera kudeatzea. Gainera, neurri eraginkorrik hartu ezean, espezie inbaditzaileak gehiago ugaltzen jarraituko duela ohararazi dute.

Liztor asiarraren presioa desbedina da herrikoa, eta boluntario taldeen lanari lotuta dago. Izan ere, liztorrak harrapatzeko taldeak antolatuta dauden herrietan, in-tsektuak presentzia gutxiago izaten du. "Tokiko koordinazioa eta boluntario-lana funtsezko faktoreak dira espeziearen kontrol



Erlezainak, boluntarioak eta Urkiola Landa Garapenerako ordezkariak. LANDA GARAPENA

eraginkorragoa lortzeko", azaldu dute Bizkaiko Erlezainen Elkarteak eta Urkiola Landa Garapenerak. Alde horretatik, domekan Garain eskertza egin zieten tranpak ipintzen dituzten eskualdeko boluntarioei.

"Udaberrian erreginak harrapatzea da biderik eraginkorrena; izan ere, hiltzen den erregina bakoitzeko ez da bakarrik bere habia indargabetzen. Hurrengo urteetan ez lirake hainbat habia berri sortuko", argitu dute.

Kubarako bilketa solidarioak, zapatuan, bost herritan

E.H. DURANGALDEA

Mugimendu sozialistak bilketa solidarioa hasi du Kubagazko elkartasunez. AEBen blokeoa tarteko, herrialdea "muturreko egoeran" dagoela gogorarazi dute, eta, horrenbestez, eskualdeko elkarteak, negozioak eta norbakoak deitu dituzte euren aletxo solidarioa ipintzera. Zapatuan elikagaiak, garbiketa orokorreko materiala, produktu sanitarioak eta kirol materiala batuko dute Durangoko Andra Marian (11:00-14:00/17:00-19:00), Zornotzako udal plazan (11:00-14:00), Abadiñoako Lagun Tokin, BMn eta Eroskin (11:00-14:00), Otxandioko kontseilupean (12:00-15:00) eta Elorrioko plazan eta Eroskin (10:00-13:00).

Ekainaren 13an Gernikako Arbola Urkiolan abestera deitu dute

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Gernikako Arbola Kantuz Elkarteak ia sei urte egin ditu Joxemari Iparragirren abesti entzutetsua Euskal Herriko ereserki izan dadin lanean. Eta bide horri jarraituta, ekainaren 13an, Urkiolako San Antonio eguneko ferian, beste mugarri bat ipiniko du: elkarteak herritarrak deitu ditu santutegi pareko harrian

batzera eta kanta abestera. Egitasmoa ez da ausazkoa, ezta kasualitatea ere, Joxemari Iparragirrek Urkiolan bertan abestu zuelako Gernikako Arbola Euskal Herrian lehenengoz, 1854ko sanantonietan, ekainaren 13an. Egitasmoa bultzatzen dabilen kideetariko bat Patxi Gaztelumendi da, Gernikako Arbola Kantuz Elkarteko laguntzailea

eta Urkiolako Hoteleko natur eta kultur ekitaldien dinamizatzailea. Esan duenez, ekainaren 13koa "urteroko hitzordu" bihurtu gura dute: "Proposamen hori adostu genuen joan zen asteburuan, Urkiolako Hotelean egingako topaketan. Eta proposamen hori egingo diegu Abadiñoako Udalarari, inguruko elkartei, musikariei, abesbatzei zein dantzari. Urkiolara etorri eta denok batera abestekoa". Gaztelumendik gogoratu duenez, Iparragirrek sei mila lagun aurrean abestu zuen 1854 hartan:



Joan zen zapatuko kantaldia.

"Ipini dezagun berriro ere bogan sasoi hartako hita izan zen hori", adierazi du.

Gernikako Arbola ereserki bihurtzeko dinamikak egun-pasa egin zuen joan zen zapatuan, Urkiolan. "Izan ere, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak badute ereserkia. Nafarroak ere badu berea. Baina Gernikako Arbola denek erabili dute: komunistek, anarkistek, sozialistek, abertzale batzuek zein bestek. Horrenbestez, denon ereserki historiko eta adostua izan daiteke", hausnartu du Gaztelumendik.

OSTALARITZA *gida.*

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

XIBERU  Xiberu Taberna  xiberutaberna



Zezenia Gallartzagoitia, 9 ZORNOTZA
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

GAUARGI  gauargitaberna



Dantzari, 4 behea IURRETA
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

OLAJAUREGI  Hotel Olajaregi  hotel_olajaregi_jatetxea



Kurutziaga, 52 DURANGO
Tel.: 946 200 864

Dastatzeko menua 50
Karta / Taldeko menuak.
Galdetzeko deitu edo webean begiratu.

IBAIZABAL



Ibaizabal taldea, 2B DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.
Ostiraletan pintxopotea!



Lehenengo instalazioa Astolan ipini gura dute.

Abadiñoko Udalak bat egin du udalerriko Energia Komunitateagaz

Aurreikuspenen arabera, Astolan ipiniko dute lehenengo instalazioa, udal brigadaren biltegiko teilatuan

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Abadiñoko herritar talde bat Energia Berriztagarrien Komunitatea sortzeko batu zen 2023an, eta bilerak eta aurkezpenak egin eta gero, udalaren atea jo zuen proiekturako sostengua eta bultzada eske. Orain, udala Energia Komunitate horretara batu da. Udalbatzako alderdi politikoek aho batez erabaki dute bertara batzea.

Komunitatea eratuta dago jada: *Abadiñoko Energia Berriztagarrien Komunitatea* du izen osoa, eta kooperatiba izaera du. Horri eskerrak, proiektuan udalerriko komertzioek, herritarrek, enpresa txikiek eta udalak berak esku hartzeko aukera izango dute. Energia berriztagarria ekoitzi bitartean hura kontsumitu ahal izango dute. Udala eskubide osoko bazkide kontsumitzailea izango da. Eta, horrenbestez, teilatuak

eskuragarri utziko ditu bertan eguzki plakak instalatzeko, eta eraikin publikoak ere bai tokiko energia berriztagarritz hornitzeko. Halaber, faktura elektrikoa murrizteko eta egoera zaurgarrian daudenentzat energia hornitzeko helburuak ere baditu proiektuak.

Beharrezko administrazio lanak amaituta, udala azpiegitura instalatzen hasiko da. Astolan ipiniko dituzte lehenengo eguzki plakak, udal brigadaren biltegiko teilatuan. Eraikinak energia berriztagarriko instalazio bat du lehendik ere eta udalak uste du modu horretan errazagoa izango dela haren edukiera handitzea eta modernizatzea. Era berean, "kokapenak aukera emango du herritarrik gehienei zerbitzua emateko, autokontsumorako araudiak ezartzen duen kilometro biko erradioaren barruan dagoelako", azaldu du udalak.

Garbi eta Gaztelua arteko bidea itxita ibilgailuentzat

M.Z. ABADIÑO

Inguruko konponketa lanak dirrela eta, Garbi enpresaren eta Gaztelua auzoaren arteko bidea itxita egongo da ibilgailuentzat apirilaren 20tik maiatzaren 20ra bitartean. Abadiñoko Udalak jakinarazi duenez, obrak aurrera egin ahala oinezkoentzako pasabidea ere itxi egin beharko dute egun jakin batzuetan.

Felix Iturriaga txirrindulari ohiaren inguruko erakusketa

M.Z. ABADIÑO

Apirilaren 20tik Felix Iturriaga txirrindulari ohi abadiñarrari buruzko erakusketa bat dago Abadiñoko Errota Kultur Etxean. Iturriaga Karpys taldean aritu zen, besteak beste. Abadiñoko Udalak bultzatutako erakusketa da eta maiatzaren 10era bitartean egongo da ikusgai.

Mallabian Etxebizitza Bulegoa zabalik hileko azken martitzenetan

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak, Debabarrena-ko udalekin elkarlanean, etxebizitza-bulego ibiltari bat ipini du martxan. Honen helburua herritarrei etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzeari eta alokairurako eta energia-eraginkortasunerako laguntzei buruzko informazioa, orientazioa eta laguntza ematea da. "Gure helburua da herritarrek

modu erraz eta egokian jasotzea informazioa eta laguntza, eta aldi berean gure komunitatea indartzea, behar dutenekin elkarlanean", adierazi du Igor Agirre Mallabiko alkateak.

Bulego hau hileko azken martitzenetan egongo da zabalik Mallabian, 8:15etik 12:15era, udal-terako gela batean. Mallabiko Udalak jakinarazi duenez, aurretik hitzordua eskatzea komeni da, arreta egokia bermatzeko. Hori horrela, interesdunek 675 873 853 telefono zenbakira deitu beharko dute.

San Jurgi jaiak ospatuko dituzte Mallabiko Berano Txiki auzoan

M.Z. MALLABIA

Zapatuan, apirilak 25, San Jurgi jaiak ospatuko dituzte Mallabiko Berano Txiki auzoan. 11:00etan meza egongo da, eta 12:00etan Mallabiko Gazte Alai taldearen dantza saioa. 14:30ean auzo bazkaria dute, Irune Basagoitik eta Ibai Amillategi bertsolariak giro-tuta, eta Begi Bide taldearen kontzertua egongo da, besteak beste.



Alea Iraculis eta Jon Guezala.

PUBLIERREPORTAJEA

Ikasi, bidaiatu eta hazi: Armeria Eskolak eskaintzen duen guztia

Armeria Eskola EIBAR

Instalazio modernoek, aukera zabalek eta nazioarteko esperientziak gero eta ikasle gehiago erakartzen dituzte Armeria Eskolara. "Aukera asko daude eta horrek erraztasuna ematen du zer ikasi nahi duzun aukeratzeko." Gero eta ikasle gehiagok egiten dute eskualdetik kanpoko pausoa Armeria Eskolan ikasteko. Alea Iraculis eta Jon Guezala dira horren adibide argiak. Alea Zornotzakoa da, baina Armeria Eskolako instalazioek eta eskaintza zabalak erakarri zuten. Tailerrak eta baliabideak funtsezkoak izan ziren bere erabakian, baita ikasketak desberdinen aukera ere.

Mekatronika industrialak aukeratu zuen, arlo ezberdinak lantzeko aukera ematen duelako, eta horrela bere etorkizuneko bidea hobeto definitzeko. Bere esperientzia oso positiboa izan da: laguntza giroa eta irakas-kuntza praktikoa azpimarratu ditu: "Beti dago norbait laguntzeko prest." Jon Guezalak ere ibilbide progresiboa egin du Armeria Eskolan, robotikako espezializaziora iritsi arte. Bere kasuan, nazioarteko esperientziak izan dira giltzarrietako bat: hiru mugikortasunetan parte hartu du, eta, horrela, gaitasun teknikoak praktikan jarri ditu eta ingelesa hobetu du. "Beste kultura batzuk eza-

gutzea eta ikasteko aukerak oso aberasgarriak izan dira", esan du. Gainera, ikastetxeko bizitzan aktiboki parte hartu du, ikasleek ordezkaritza izanik eta hainbat ekitalditan parte hartuz. Horrek ardura, konpromisoa eta lidergoa garatzeko aukera eman dio. Armeria Eskola ez da soilik ikasteko lekua: esperientziak bizitzeko, hazteko eta etorkizun profesional sendoa eraikitzeko gunea da. AUKERARIK ONENA, ETORKIZUNA DUENA.



Ateak irekitzeko eguna: apirilaren 29a

Okm batzen gaituen distantzia

ANBOTOKIDE

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE
ETA PARTE HARTU
GURE ZOZKETETAN!

APIRILEKO ZOZKETAK



Herri Urrats-eko opari sorta.



Xiberu taberna (Zornotza) bi gosari bikoitz.

*ZOZKETA HAUETAN PARTE HARTZEKO
EMAN IZENA GURE WEBGUNEAN.



Andresa Landa eta Elixoste lotzen dituen kalea eta Artekaleko kantoia berriztuko dituzte Otxandion

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Udalak Andresa Landa eta Elixoste ingurua lotzen dituen kalea eta Artekale kaleko kantoia konpondu eta berriztu gura ditu, "herriarren segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko helburuagaz", udal ordezkariak adierazi dutenez. Udalak guztira 275.500 euroko inbertsioa es-

leitu berri du obra horietarako. Estudios y Obras Rekalde enpresak irabazi du lehiaketa publikoa, jakinarazi dutenez.

Udal arduradunek urbanizazio lan horiekin ekainean hasita aurreikusitako. Herriko alkate Egoitz Garmendiak argitu duenez, okerrik ezean lanak udazkenerako amaituta egotea itxaroten dute.



Andresa Landa eta Elixoste lotzen dituen kalearen irudi bat. OTXANDIOKO UDALA

Aurrekontu parte hartzaileen prozesua hasi dute Iurretan

A.B. IURRETA

Iurretako Udalak aurtengo aurrekontu parte hartzaileen prozesua hasi berri du. Herriarren proposamenak batuko dituzte apirilaren 29ra bitartean, eta, ondoren, bideragarriak diren proiektuak lehenetsiko dituzte. Hautatutako proiektua gauzatzeko, 50.000 euroko diru poltsa dago lotuta.

Udalak hainbat bide zabaldu du proposamenak helarazteko. Zenbait establezimendutan hautetsontziak ipini dituzte; baita udal bulego eta eraikinetan ere, jendeari arreta emateko ordutegiaren barruan. Udaleko webgunean dagoen inprimakia beteta ere bideratu daitezke proposamenak, edo etxeetara bidalitako inprimakian dagoen QR kodea erabilita. Iazko aurrekontu parte hartzaileen bitartez, herriko argiteria publikoa modernizatzeko eta hobetzeko neurriak hartu zituzten.

Iurretako Oromiño auzoan dena prest sanmarkoak ospatzeko

A.B. IURRETA

Iurretako Oromiño auzoan jai giroa izango da nagusi datozen egunetan. Gaur altxatuko dute San Marko jaiei ondoetorria emateko Donien Atxa, txalaparta doinuz girotuta. Segidan, bakailao errea eskaniko diete parte hartzaileei.

Jai batzordeak hainbat ekitaldiz osaturiko egitaraua prestatu du

asteburuari begira. Auzo bazkaria, tortilla txapelketa eta Maiztegi herri eskolako umeen dantza erakustaldia egongo dira, besteak beste. Luhartz plaza taldeak berotuko du gau giroa. Bestalde, Iurretako Mikel Deuna dantza taldeko dantzariak saioa egingo dute domekan, eta tokiko produktore eta artisauen lanak batuko dituen azoka egongo da bertan. Eguerdian, auzokoak kantu-dantza bazkarian elkartuko dira. Donien Atxa bota eta jaiak agurtu aurretik, jai batzordeak errifaren zozketa egingo du.

Domekan orientazio zirkuitu herrikoia egingo dute Otxandion

A.B. OTXANDIO

Domekan XII. Jesus de la Fuente Orientazio Zirkuitu Herrikoia bosgarren proba jokatuko da Otxandion. Bidea orientazio klubak antolatuta, Euskal Herriko Orientazio Kopa (EHOK) osatzen duten lau probetatik bigarrena izango da. Mainondo pilotalekuan egongo da lehiaketa zentroa, eta lehenengo irteerak 10:00etan izango dira; azkenengoak 12:00etan. Parte hartzaileei 09:30ean egingo zaie harrera.

Parte hartzaileek proba osatzen duten lau ibilbideetariko bat egin beharko dute. Mailaka irtingo dira, banaka edo taldean. Baliza start izeneko lasterketaren hasierako baliza markatu ondoren, irteeran emandako mapan markatutako puntu edo balizetatik ordena egokian igaro behar dira, aproposena deritzen bidetik. Orientazioa eta martxak gustuko dituztenei eta kirola egin gura duten familiei dago zuzenduta.

Erramun Osa izango da Garaiko EAJren alkategaia



Erramun Osa.

E.H. GARAI

2027ko udal hauteskundeak dirrela eta, jeltzaleek iragarpena egin dute Garain: EAJk Erramun Osa aurkeztuko du zerrendaburu eta alkategai, udalerriko talde jeltzaleak aho batez halantxik erabakita. Garaiko EAJk haren "konpromisoa eta erakundearen artean lan egiteko gaitasuna" txalotu ditu, eta Osa berriro ere alkate izateko asmoa berretsi. Hautagaiak herria hobetzen jarraitzeko borondatea agertu du, hala nola auzotaxi zerbitzua eta kirolgunea martxan ipinita.

Asteburu honetan Erreka kaleko jaiak ospatuko dituzte

M.Z. ELORRIO

Eguenean pala txapelketagaz eta pintxo-pote bereziagaz eman zieten hasiera Erreka kaleko jaiak Elorrion. Astebururako ere hainbat ekintza izango dute: buruhandiak, herri kirolak, dantzak eta haurrentzako puzgarriak, besteak beste.

Musika kontzerturik ere ez da faltako Erreka kaleko jaietan, ezta jai hauetako bereizgarrietariko bat izaten den Artisau eta Sortzaileen Azoka. Eixuk antolatzen duen azoka Urarka plazan egingo dute, apirilaren 26an, 11:00etan hasita.



350 euro jaietako kartelik onenarentzat



M.Z. IZURTZA

Izurtzan lehiaketa hasi dute irail hasieran ospatuko dituzten jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko. Proposamenak maiatzaren 22ko 15:00ak baino lehenago aurkeztu beharko dira Izurtzako udalategian. Kartel irabazleak 350 euroko saria jasoko du. Kartelak testu hau izan behar du derrigorrez: 'Izurtzako Jaiak 2026'. Kartel lehiaketako oinarri guztiak udalaren webgunean kontsultatu daitezke.

Mañarian banku eta zakarrontzi berriak ipini dituzte



M.Z. MAÑARIA

Mañariko Udalak lau banku eta hiru zakarrontzi berri ipini ditu plaza nagusiaren eta erreka ondoan dagoen parkean. Lanak joan zen astean egin zituzten eta 2.253 euroko aurrekontua izan dute.

Udalak jakinarazi duenez, orain arteko elementuak zaharkituta zeudelako ordezkatu dituzte. "Helburua herriko espazio publikoen mantentze-lanak hobetzea eta eremu horiek txukunago eta erabilgarriago izatea da, hala herritarren ongizatea bermatzeko", gehitu du udalak.

Mañariako organoa ezagutzeko aukera dago apirilaren 25ean

M.Z. MAÑARIA

Apirilaren 25ean bisita gidatua egingo dute Mañarian bertako organoa ezagutzeko. Antolatuzaileek 11:00etan ipini dute hitzordua, eta sarrera doakoa izango dela jakinarazi dute. Organoa ezagutzeko aukera izateaz gainera, zuzeneko musika entzuteko aukera ere egongo da.

Mañariko Andra Mari elizan dagoen organoa Bizkaiko barroko estiloko organorik handiena da. Estetika barroko tipikoan eginda dago, hala soinuetarako osaketan nola itxura plastikoan. Santiago de Erdoyzak sortu zuen XVIII. mendean, eta 45 nota ditu.

Mañariko pilota txapelketa herrikoiko final-laurdenak, gaur

M.Z. MAÑARIA

Gaur, apirilak 24, Mañariko pilota txapelketa herrikoiko final-laurdenak jokatuko dituzte. Partiduak 16:30ean hasiko dira eta ikusleek lau partiduz gozatzeko aukera izango dute. Bikote hauek arituko dira final-laurdenetan: Martin eta Peio Liherreren eta Josebaren aurka, Azcune eta Paskual Gerrikaren eta Kanoren kontra, Ekain eta Liherr Aratzen eta Enaitzen kontra, eta Aitor eta Urko Xabiren eta Beñaten aurka. Behin final-laurdenak pasatuta, finalerdiak datorren hilean jokatuko dituzte, eta finala ekainaren 13an, Albokanrolla egunean.

hitz arteka'lea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#SAL DUE NAK

- 1# DENA ZULO BERA ZEN**
Eider Rodriguez Susa
- 2# SILUETA**
Harkaitz Cano Susa
- 3# EKOLOGIA PIRATA BATEN ALDE**
Fatima Ouassak Katakak
- 4# IZEN BATEN PROMESA**
Hedoi Ebrarte Susa

GAER 

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

'Dena bueltan' da film irabazlea

M.Z. DURANGO

Lentz-lente taldearen *Dena bueltan* film laburrak irabazi du Labor Esanda lehiaketa. Parte hartzaileek 24 orduetan bideo bat burutu behar izan dute, gaia, objektua eta esaldia jakinda. Bideoen gaia *borobila* izan zen, eta bertan objektu hau sartu behar zuten momenturen baten: *zinta*. Baita *noraino helduko ga?* esaldia.



Labur esanda lehiaketako irabazleak.

DURANGALDEA ASTEON

Lander Ruedaren argazkiak irabazi du ANBOTOren lehiaketa

DURANGALDEA Beste urte batez, ANBOTOk Udaberriko Argazki Lehiaketa antolatu du. Aurten goan ere dozenaka lagunek parte hartu dute argazki lehiaketan eta argazki irabazlea Lander Ruedaren Kaixo, eguzki izan da. Argazkiak 371 boto jaso ditu. Bigarren postua Gorka Valdesen Papourdina kantari argazkiak lortu du, eta hirugarrena Ibai Bengoaren Ilusentia harrapatuz argazkiak.



LANDER RUEDA.

Durango Kantari domeka honetan, Eingo taldearen parte hartzeagaz

DURANGO Apirilaren 26an Durango Kantari ekimenaren beste topaketa bat egingo dute. Hitzordua 12:30ean izango da, merkatuan, eta asteburu honetakoa Eingo taldeak girotuko du. Durangoko Udalak saioagaz bat egiteko deia egin die herritarrei, bertan parte hartu, abestu eta gozatzeko asmoz.

GUTUNAK

Salaketetatik harago

JASONE URIZAR UGARTEMENDIA
ETA IDOIA MARIN KORTAZAR

Aspaldian, gero eta ohikoagoa da gazteen jokabide desegokien inguruko kontuak entzutea. Hala-koetan, askotan ondorio bera ateratzen da: gazteak gero eta okerrago portatzen direla eta neurri zorrotzagoak behar direla hartu. Baina, benetan aldatu al dira gazteen jokabideak?

Gazteen portaera desegokiak beti existitu dira. Gaztaroak berez dakar arauak probatzeko joera, mugak gainditzeko tentazioa eta akatsak egiteko arriskua. Ez da gaurko kontua, betidanik egon da. Alderik handiena, erantzunean egon daiteke. Lehen, familiek, auzokideek edo komunitateak parte hartzen zuten konponbidea bilatzeko. Gaur egun, ordea, zorritzarez, ohikoa bihurtzen ari da bide polizial edo judizialak jotzea. Salaketa da sarritan lehen urratsa, askotan pentsatu gabe zelako ondorioak izan ditzakeen adin txikikoarengan eta haren

familiarengan. Ez lege-mailako ondorioak soilik, baita sozialak ere. Izan ere, arazoa konpontzen lagundu beharrean, are gehiago sakontzeko arriskua ekar dezake bide horrek. Gazteek zigor "eredugarrien" bitartez ikasiko dutela eta berriro gertatu ez dadin, hasieratik muturreko erabakiak hartzea beharrezkoa dela pentsatzen dute batzuek. Eta beharbada, arrazoa izango dute.

Baina bagaude oraindik bestelako bideetan sinesten dugunak ere, arazoei aurre egiteko biderik eraginkorrena hezkuntzan, laguntzan eta berriro hasteko aukeretan oinarrituta egon behar duten neurrietan sinesten dugunak. Bazterrean dabilen gaztea are gehiago baztertuz, nekez lagunduko baitugu bere bidea zuzentzen. Adin txikikoekin lan egiten duenak arauak zaindu behar ditu, baina baita balioetan hezi ere, benetan ingurune hezitzailea eskaintzen ari garela sinesten badugu. Horregatik, agian, merezi du galdera hau egitea: salaketa eta zigor "eredugarrietatik" harago, ez ote genuke gehiago pentsatu behar neurri hezitzaileetan, elkarrizketan eta integrazioan oinarritutako bideetan?

POLITIKAN

Etxebizitza krisiari erantzun



MARKEL LARRUSKAIN
EH BILDU

Arazo bat daukagu, ez Durangon bakarrik, baina Durangon ere bai.

Nola konpondu eztabaidatzen hasi baino lehen, ezinbesteko galdera bat: etxebizitza eskubide bat da, bai ala ez?

Kontuan izateko elementu bi. Lehen: Durangon etxebizitza ez dago eskuragarri, are gutxiago prezio duinetan, eta, batez ere, alokatzeko aukera falta da, hori diote datuek, nabarmen. Eta bigarrena: administrazio publikoak ez du berehala egoera bideratzeko gaitasunik, orain arte merkatuaren esku (erakuntza enpresak, etxe-agentziak, inbertsio funtsak...) utzi duela etxebizitza politika. Egoerari buelta emateko, epe luzerako planifikazio serio bat behar da, aditu guztien arabera.

Etxebizitza eskubide bat dela uste badugu, gure esku dagoena egiteko betebeharra dugu esku-bide hori efektibo egiteko, bestela, oinarritzko eskubide bat urratzen ari gara. Durangon, badaude aukerak udalean etxebizitza politikak egiteko, kontua da bakoitzak zer interes eta zer bororondate duen. EH Bildun baditugu proposamenak eta 10 neurri zehatz aurkeztu ditugu. Salbuespeneko osoko bilkura batera deitu dugu proposamen horien inguruan eztabaidatzeko, eta alderdi bakoitzak bere neurriak aurkezteko aukera izango dugu bertan. Eztabaida jarraitu eta parte hartzera gonbidatuta zaudete herritar guztiak.

anboto

ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902



Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Maialen Zuazubiskar
Gallastegi, Aritz Maldonado
Zabala.

Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kultura Sailak diruz lagundua





SAN PRUDENTZIO JAIAK 2026



SAN PRUDENTZIO JAI EGITARAUA

APIRILAK 27

DONIEN ATXA

- **17:00** Kuadrilla guztiak Trañako zubian batuko dira Donien Atxa ekartzeko.
- **19:00** Donien Atxa jaso, Iluntze taldearen dantza saioa, eta urteko herritar ospetsua saritzeko ekitaldia. Ondoren, kalejira Joselontxos fanfarreagaz.

APIRILAK 28

SAN PRUDENTZIO

- **12:00** Familiarentzako ikuskizuna Traña plazan: **Tavole (Zirko Txosko)**. Euria bada, frontoian.
- **18:00** Familiarentzako ikuskizuna Traña plazan: **Lurrazpitik (Antxo ta Pantxa)**. Euria bada, frontoian.

APIRILAK 30

- **16:45** Txiki merienda merkatu plazan. Txartelak salgai Errota Kultur Etxean apirilaren 20tik aurrera, gehienez 5 txartel pertsonako. Txartela: 1
- **17:15** Disko-dantza merkatu plazan.
- **19:00** Txupinazoa txosna gunean Hamabi Harri taldearen eskutik. Ondoren, parrillada.
- **19:30** Kontzertua Traña plazan:
 - Haize-arrosa
- **20:45** Bingo solidarioa Traña plazan.
- **22:00** DJ JKRmona & Berros Traña plazan.
- **00:00** Bingo solidarioa Traña plazan. Ondoren, DJ JKRmona & Berros Bingo solidarioan jasotako dirua Atxondo Harrera Herriaren elkartearantz izango da.

MAIATZAK 1 MOZORRO EGUNA MUNDUKO MITOLOGIAK

- **12:30** Kalejira Ad Libitum fanfarreak alaituta.
- **14:30** Herri bazkaria frontoian. Ondoren, kuadrillen arteko jolasak, Txosna Batzordeak antolatuta.
- **19:00** Mozorro kalejira Trañabarren kalean.
- **22:00** Kontzertua Traña plazan:
 - Ainke
 - *Impuesto Revolucionario (Tributo a Eskorbuto)*
 - *Josetxu Piperrak*

MAIATZAK 2

- **08:00** Mahai eta aulkien banaketa merkatu plazan.
- **Haurrentzako tailer multisentsoriala frontoian: Baserria**. Lehenengo saioa (**11:00**): 18 hilabete - 2 urte. Bigarren saioa (**12:30**): 3 - 6 urte. Edukiera mugatua. Gonbiteak eskuragarri Errota Kultur Etxean apirilaren 13tik aurrera.
- **11:30** Paella txapelketarako izen ematea, merkatu plazan.



lazko mozorro eguneko argazki bat.

mapfre
BEGOÑA NAVARRO
CAPANAGA
MAPFRE MATIENA

San Prudentzio, 2 - Matiena
94 681 88 89
681 374 042
navarrb@mapfre.com

XARMA
Fisioterapia eta Osteopatia
Martine Usabel Lizundia

673 589 190
xarmafisioterapia
fisioterapiaxarma@gmail.com
Trañabarren 27, Traña-Matiena, Abadiño

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

**MATIENA
ESTANKOA**

Trañaetxoste, 2
MATIENA - ABADIÑO
Tel.: 946 814 033

ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma,
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374
@zainduz_fisioterapiaosteopatia

PSE: 119 -13

SERRATU S.L.

Ondo pasa San Prudentzioetan!

Galdaragintza eta itxierak
Enpresetan mantentze-lanak

Astola, 48 ABADIÑO - Tel.: 946 201 837
serratu@serratu.com - www.serratu.com



TONO
ALBAÑILERÍA

Igeltserotza orokorra
Etxebizitzan zaharberritzeak
Merkataritza-lokalak
Baserriak

GREMIOEN
KOORDINAZIOA

686 420 383
946 202 565



- **12:00 Trikitilariak** merkatu plazan.
- **16:00 Ugasio txapelketa** merkatu plazan.
- **17:30 Tortilla txapelketarako izen ematea**, merkatu plazan.
- **21:00 Mahaiak eta aulkiak jasotzea** merkatu plazan.
- **22:30 Jaialdia Trañabarren etorbidean:**
 - *Orquesta Génesis*
- **22:30 Kontzertua** Traña plazan:
 - *Malakias*

MAIATZAK 3

- **GOIZEAN, Geu Be taldeak Eusko Labeleko txahal bat erreko du** eskolako aterpean.
- **11:00 Artisautza azoka** eskolako aterpean.
- **11:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira.**
- **11:00-13:30 Umeendako jolasak** Traña plazan. Euria bada, frontoian.
- **16:00-19:30 Umeendako jolasak** Traña plazan. Euria bada, frontoian.
- **17:00 Mus txapelketa** La Mari tabernan.

MAIATZAK 8

- **17:00 Txikikarokea** Traña plazan.
- **18:00 San Prudentzio esku pilota txapelketako finala**, Axtxiki Pilota Klubak antolatuta.
- **20:00 Bertso saioa** Errota Kultur Etxean. **Bertsolariak: Igor Elortza, Onintza Enbeita, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Irune Basagoiti.** Gai jartzailea: **Igor Galarza.** Gonbiteak eskuragarri Errota Kultur Etxean apirilaren 20tik aurrera (gehienez 4 sarrera pertsonako).
- **23:00 Erromeria** Traña Plazan:
 - *Zirkinik Bez!*

MAIATZAK 9

GAZTE EGUNA

- **12.30 Iluntze dantza taldearen kalejira eta ekitaldia** Traña plazan.
- **14:30 Gazte Eguneako bazkaria** Traña plazan. **Ondoren, kuadrillen arteko jolasak.** Euria bada, eskolako aterpean. Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.

- **18:30 Kalejira Sakatu taldeagaz,**
- Traña-Matienako Gazte Asanbladak antolatuta.
- **22:00 Kontzertua** Traña plazan:
 - *Maruxak*
 - *Dj Kuku*
 - *Dj Inshore*

MAIATZAK 10

- **10:00 Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz.**
- **12:00 Herri kirolak** Traña plazan.
- Euria bada, eskolako aterpean.
- **12:45 Jaizale txistulari elkartearen kontzertua**, elizan.
- **14:00 Nagusien bazkaria** frontoian. **Ondoren, Sua bikotearen ekitaldia.**
- **17:00 Tute txapelketa** Taberna Zarran.
- **18:00 M'Lomp taldearen kalejira.**
- **20:00 Donien Atxa bota.**

Ono pasa jaietan!

SCHMIDT

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Murueta auzoa z/g
Eroski Merkatal zentroa
ABADIÑO

www.homedesign.schmidt



ALDEKOA-OTALORA

iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Arzuria 10 B industrialdea, 13-14 pabillorak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779

atte studio

ARKITEKTO TEKNIKOAK
608 518 093

PROIEKTUAK
ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA
LIZENTZIAK
OBREN ZUZENDARITZA
ETXEBIZITZEN IKUSKAPEN TEKNIKOAK
BARNE DISEINUA
TASAZIOAK

Zubibitarte 2 behea, 48220 Abadiño

Maialen Zuazubiskar JAIK

Traña-Matienan ohitura da Donien Atxa biribilgunearen erdi-erdian jasota ematea hasiera jaiei. Eta ohitura duten moduan, aurten ere apirilaren 27an ekingo diete jaiei, San Prudentzio bezperan. Kuadrillak 17:00etan batuko dira Trañako zubian, eta, ondoren, Donien Atxaren bila joango dira. 19:00etan, urteetako errituala egingo dute, hau da, Bodeguillan Donien Atxa sartu eta hiru kolpe emango dizkiote tabernako hormari. Bodeguilla taberna zarratuta dago, baina Donien Atxari harrera egiteko, Javier Gaztelurruitiak ordu batzuez zabalduko du. Ondoren, Zubibitarte, Trañabarren eta Laubideta kaleak lotzen dituen bidegurutzean altxatuko dute txopoa, jaiak martxan daudela dioen ikurra. Jaien hasierako ekitaldia boro-biltzeko, urtero legez Iluntze taldearen dantza saioa egongo da, eta urteko herritar ospetsua saritzeko ekitaldia egingo dute. Gero, kalejira egongo da Jose-lontxos fanfarreagaz.

Apirilaren 27tik maiatzaren 10era bitartean, Abadiñoako Udalak eta Jai Batzordeak etenik



Donien Atxa jasotzen den ekitaldiak jendetza batzen du.

Donien Atxa jasota, herriko kuadrillek sanprudentzioei hasiera emango diete

Apirilaren 27tik maiatzaren 10era bitartean ospatuko dituzte jaiak Traña-Matienan

bako jarduera sorta prestatu dute elkarlanean. Egitarau zabaldua prestatu dute adin eta gustu guztientzat. "Herritar guztiak gonbidatu gura ditugu jaietzat. Gero, kalejira egongo da Jose-lontxos fanfarreagaz. Apirilaren 27tik maiatzaren 10era bitartean, Abadiñoako Udalak eta Jai Batzordeak etenik

ere errespetuz", azaldu du gobernu taldeak.

Maiatzaren 1ean, esaterako, herritarrek euren moztarrik irudimentsuenak kalera ateratzeko aukera izango dute. "Munduko mitologiak" da aurtengo

gaia moztarrik. Eguerdian herri bazkaria egongo da, eta 19:00etan moztarrik kalejira. Hurrengo egunean paella eta tortilla txapelketak egongo dira.

Bigarren asteburuan bertso saioa, San Prudentzio esku pilo-

ta txapelketa, Gazte Eguna, herri kirolak eta nagusien bazkaria egongo dira, besteak beste.

Musika eskaintza zabala

Musikari dagokionez, eskaintza zabala egongo da. Apirilaren 30ean Haize-Arrosa taldearen kontzertua egongo da, eta baita JKRmona&Berros DJak ere. Maiatzaren 1ean Ainke, Impuesto Revolucionario eta Josetxu Piperrak taldeen kontzertua egongo dira. Maiatzaren 2an Malakias arituko da Traña plazan, eta Orquesta Génesis Trañabarren etorbidean.

Bigarren asteburuan Zirkinik Bez erromeria eta Maruxak, DJ Kuku eta DJ Inshore arituko dira Traña plazan.

Erasoen aurka

Jai eremuan gertatu litezkeen erasoei aurre egiteko, udalak indarkeria matxistaren aurkako informazio eta arreta gunea ipiniko du. Herritar guztiak kontzientzia hartzea lortu gura du udalak, eta erasoren baten biktima izan diren zein erasoren bat edo egoera deserosoren bat ikusi duten herritarrek artatuko dituzte bertan.

electricidad **ELGOIN** S.A.

**MUNTAIA ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
SARE INFORMATIKOAK**

Zubibitarte, 6
48220 MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)
Tel.: 946 817 961 · elgoin@elgoin.com

Talleres
Serafín

S.Coop

Elorriagazar, 11
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 814 807

MOTOS TABIRA

KONTZESIONARIO OFIZIALA

Salmenta
Konponketa
Boutiquea

AJP PIAGGIO
KOSMOS
SCORPA

Tel./Faxa: 94 681 40 68
www.motostabira.es

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO

petite

LIBURUDENDA

PRENTSA • LIBURUAK • ALDIZKARIAK

Zubibitarte, 11 - Tel.: 946 810 438 - Matiena (ABADIÑO)

Electricidad **ANBOTO**

AUTOMATISMOAK-HARILKATZEAK
ELEKTRIZITATE-INSTALAZIO
INDUSTRIALAK
AUTOMOZIOARAKO ETA
INDUSTRIA-
ELEKTRONIKARAKO KABLEATZEAK

Tel.: 946 812 433
Faxa: 946 810 996
www.electricidadanboto.com

Trafapadura industriagunea,
C pabiloia, 5. lokala
MATIENA - ABADIÑO (Bizkaia)

Administración de loterías

N.º 1 HIRU

Ondo pasa jaietan!

San Prudentzio, 2 beheko MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 946 280 457 - loteriahiru@hotmail.com

Jone Guenetxea TXOSNAGUNEA

Donien Atxa jasota, astelehenean martxan ipiniko dituzte San Prudentzio jaiak. Eta jaien bigarren abiatze bat ere izango da, txosnen irekiera iragarriko duena, hain zuzen ere. Txosnagunearen txupinazoa jai giroaren eta parrandarako asteburu luzearen aurrekaria izango da. Aurten, Traña-Matienatik gertu dagoen auzoko elkarteak izango da txupina jaurtiko duena: Hamabi Harri auzo elkarteak. Beraz, Gerediaga auzoko bizilagunak jaietan protagonista izango dira.

Elkarteko kideek gogoratu dutenez, orain urte batzuk San Prudentzioetan txosna ipintzen zuten, auzo elkartearen finantziarioa handitzeko. "Txosnaguneko kide izan ginen urte pare batez, eta oso polita da orain gugaz gogoratzea txupinazoa botatzeko", azaldu du Kepa Bengoa Hamabi Harriko kideak.

22 urte martxan

2004ko uztailean hasi ziren Hamabi Harri auzo elkarteak eratzten. Sasoi hartan, Gerediagako ermitaren eta foru zelaiaren obrek eta inguruaren itxierak kezka sortu zuten auzokideen artean.



Gerediagako auzokideek Peruharrira egindako irteera.

Hamabi Harri auzo elkarteak jaurtiko du txosnetako txupinazoa, apirilaren 30ean

Gerediaga auzoko bizilagunak abiatuko dituzte jaiak txosnagunearan

Urte hartako azaroan, elkarteak juridikoki sortu zuten, antolatzeko eta auzo izaera indartzeko tresna legez. Indar handiz defendatu zuten Gerediaga ingurua zabalik mantentzea, auzoaren eta herritarren eremu legez era-

biltzeko. Harrezkero, inguru hori zabalik egoten da eta auzoko Salbadore jaiak ere bertan antolatu eta egiten dira.

Auzo elkartearen sorreraren aurretik ere jai batzordea martxan egon da Gerediaga auzoan,

1973tik. Gainera, jai batzorde hori beti izan da jaiak antolatzen dituen talde bat baino gehiago.

Jaiak prestatzen

Orokorrean auzoetako jaiak apurka-apurka indarra galdu

duten arren, Gerediaga auzoan mantendu egin dituzte, auzokideen lanari eta konpromisoari eskerrak. 2026ko jaiak ere prestatzen dabilta dagoeneko. Durangaldean, udako jaietan erreferentzia izaten dira. Hartara, Auzo elkarteak kideek Traña-Matienako jaietan parte hartzeri deitu dute, eta gogoratu dute abuztuaren Gerediagako jaietan txanda izango dela. Aurten, gainera, egutegiak hala markatuta, ohikoa baino geroago izango dira, abuztuaren 5etik 8ra bitartean.

"Txosnaguneko kide izan ginen, eta orain gugaz gogoratzea oso polita da"

Elkartearen sortu aurretik jai batzordea martxan egon da 1973tik

NuevoPino
659 201 667

azulmarino
MATIENA - ABADIÑO
Trañabarren 11 behea
944 019 767 688 739 254
matiena.tranabarren@azulmarino.com
www.viajesazulmarino.com

PARRIAUNDI
BERTOKO OGIA · BENETAKO OGIA

Parriaundi
BERTOKO OGIA · BENETAKO OGIA
Parriaundi Matiena
Trañaetxoste Kalea, 8
664 20 44 88

GISASOLA PENTSUAK
EKOGARDEN
FLORIS - PIENSU - HUERTA
GISASOLA PENTSUAK
EKOGARDEN
LORAK - PENTSUAK - BARATZA
TRAÑA - MATIENA - ABADIÑO - BIZKAIA
TELF: 94-681-66-97
C/ ZUBIBITARTE 14
E-mail: gisasola.p@gmail.com

Taberna Larra
HABITACIONES
Penión
Trañabarren, 1
MATIENA - Abadiño
Tel.: 94 681 47 14
Móv.: 679 416 564

ELECTRICIDAD
EGUZKI, S.L.
ELEKTRIZITATEA
Arzubia, 10 Apdo.115
48220 MATIENA - ABADIÑO
eguzki@elecheguzki.es
689 709 602 Jobi
946 815 201

Berria!
ELEKTRODOMESTIKOAK
AREIZAGA
Tel. eta Fax 946 814 081
Trañapadura, z/g Behea - 48220 Matiena Abadiño
areizagaelectro@hotmail.com

"Gure ondorengo belaunaldiei herri bizi bat utzi gura diegu, eta horretan gabilta"

POCHOS KUADRILLAKO KIDEAK BINGO SOLIDARIOKO ANTOLATZAILEAK

Pochos kuadrillako neskak saltsero hutsak dira. Jai batzordeko kideak dira eta sanprudentzioetan bingo solidarioa eta paella txapelketa antolatzen dituzte

Maialen Zuazubiskar JAIK

Saltsa guztietako perrexila, horixe dira Traña-Matienako Pochos kuadrilla. Jaiak ilusio bereziagaz bizi dituzte eta aktiboki lan egiten dute herriaren alde. "Herri bizi batean sinisten dugu, eta horixe da gure ondorengo belaunaldiei utzi gura dieguna", esan dute. Herrigintzan eta lan boluntarioan sinisten dute, eta, horregaitik, hiru urte daramatzate bingo solidarioa eta paella txapelketa antolatzen sanprudentzioetan. Aurten, gainera, umeentzako karaokea ere egingo dute.

Hemen daude Traña-Matienako jaiak, eta, horregaz batera, egitarauan ondo errotuta dagoen bingo solidarioa.

Iratxe Moreno: Bai, hirugarren urtez egingo dugu. Aurten apirilaren 30ean izango da.

Virginia Hernandez: Aurten, lehenengo, Haize Arrosaren kontzertua egongo da. Horren ondoren, lehenengo txandako bingo biak: arrunta eta berezia. Ondoren, gaueko hamabietan, bigarren txandako beste bingo biak egingo dituzte: arrunta eta 'parranderoa'.

'Bingo parranderoa' antolatzen duzuen lehenengo aldia da?

Begoña Gouveia: Bai, ordu horretan bai. Aurreko urteetan 19:00etan eta 22:00ak bueltan egin izan dugu. Baina aurten gauerdian egitera animatu gara.

Zeintzuk izango dira sariak?

V.H.: Lehenengo urtetik gugaz kolaboratzen duten herriko lau jatetxek lagun birentzako afari txartelak emango dizkigute. Hauetxek: Casa del Pueblok, Goxoak, Taberna Zarrak eta La Despechadak. Lerroa betetzeak ere saria izango du eta

bingo bereziko saria Tania Santosen eskutik izango da. **Zer egingo duzue bingoan baturiko diruagaz?**

V.H.: Bingo solidarioa da eta jai batzordean erabakitzen dugu dirua nori eman. Aurten baturiko dirua Atxondo Harrera Herrikoei emango diegu. Gainera, eurak ere bingoko parte izango dira, eta gugaz egongo dira apirilaren 30ean.

B.G.: Ez dugu dirutza bat batzen, baina uste dugu baturiko edozer kantitate ongi etorria dela. Karroia 50 zentimora saltzen dugu, eta bingo bereziko euro batera. Herritarrei bertaratzeko deia egiten diegu. Esan behar dugu bingoak harrera bikaina izan duela aurreko edizioetan, eta herritarrek oso ondo erantzun izan dutela.

Nortzuk zaudete bingo solidario horren atzean?

Maialen Hidalgo: Gure kuadrilla: Los Pochos. Herriko jaietan beti parte hartu izan dugu, baina azken urte hauetan aktiboki parte hartu gura izan dugu.

I. M.: Boluntarioek herriko jaien alde egiten duten lana ezinbestekoa da. Horrela, herriko jende gazteak ere herriaren alde lan



Begoña Gouveia, Iratxe Moreno, Maialen Hidalgo eta V

MUEBLES DE COCINA Y HOGAR
ARRIANDI
SUKALDE ETA ETXeko ALTZARIAK

santosarriandi.com
Urbitarate industrialdea, 6 - 3.lokala
48220 Abadiño
Tel.: 946 202 656
Mug.: 657 793 872
abadiano@arriandi.com

Enerbarri

Egurraz berotu

944 074 653
www.enerbarri.com
Muruetan, 3. Abadiño

Neumáticos ETXEBARRIA

OLIO ALDAKETA - PNEUMATIKOAK marka guztiak - BALAZTA - PASTILLAK - MOTELGAILUAK

San Prudentzio jai zoriontsuak!

Urbitarate, 6
48220 Matiena
(Hiper Eroski aurrean)

www.neumaticosetxebarría.com Tel.: 946 232 630 @neumaticosetxebarría

federópticos Apraiz

ONDO PASA JALETAN!

Trañabarren 13, beheka ABADIÑO
federopticosapraiz.com

PINTURA DENDA
TABIRA
COLOR

Urbitarate Ind., 2, Abadiño
Eroskiren aurrealdean gaude

94 621 79 11



Virginia Hernandez.

egiten duela erakutsi gura diegu beste belaunaldi batzuei.

Bingo solidarioaz gainera, beste zein ekintzatan ikusiko zaituztegu?

V. H.: Maiatzaren 8an, 17:00etan, Txikikaraoke bat egingo dugu Traña plazan. Hau esperimentu bat da guretzat. Ideia jai batzordean irten zen eta antolatza animatu ginen. Ea ondo irtetzen den.

I. M.: Eta maiatzaren 2ko paella txapelketa ere geuk antolatzen dugu, azken urteetan legez. Lehen, Miguel Angelek antolatzen zituen biak, baina, jakina, nekatu egin zen. Erreleboa ematea beharrezkoa zen eta guk hartu genuen lekukoa, ikusita jai batzordean inork ere ez ziola emango jarraipena. Dagoeneko hiru urte daramatzagu antolatzen. Ematen ez duen arren, lan handia dago egun horren antolaketan.

"Apirilaren 30eko bingoan baturiko dirua Atxondo Harrera Herrikoei emango diegu"

Zelakoa izaten da paellen eguna zuentzat? Lan handiko eguna izaten da?

V. H.: Oso egun mugitua. Goiz jaiki behar izaten dugu, mahaiaik eta aulkiak banatzen ditugu, baita zabor-poltsak ere. Izen emateak ere kudeatzen ditugu eta epaimahaiaren txokoa muntatu behar izaten dugu. Antolakuntzan sartu ginenean oso argi genuen dena zuzen egin behar genuela, eta, beraz, egun garrantzitsua da guretzat. Gainera, ez da bakarrik paella txapelketa, igel eta tortilla txapelketak ere antolatzen ditugu. Ondoren, dena jaso behar da. Ematen ez badu ere, egun horren antolaketan lan izugarria dago, eta, jakina, gustatzen zaigulako egiten dugu saltsa hau guztia.

Eta lan hauekin guztiekin denborarik ateratzen duzue aisialdirako eta ondo pasatzeko?

V.H.: Bai, jakina. Baina garrantzitsuena da gauzak antolatzen ditugun bitartean ere ondo pasatzen dugula, gozatu egiten dugula. Horixe da lan solidarioaren eta boluntarioaren gakoa. Herriko jaiak herriarentzat dira eta herriak egin behar ditu. Gure ondorengo belaunaldiei herri

bizi bat utzi gura diegu, eta horretan gabiltza.

M.H.: Gainera, orokorra gure kuadrilla oso saltseroa da eta ekintza guztietan egoten ahalgintzen gara, ez bakarrik gauzez. Jaiak gauak baino askoz ere gehiago da. Herri bazkarira joaten gara, paella egunera, Gazte Egunera, mozorratu egiten gara...

Beste ezer gehitu gura zenukete elkarrizketa honetan?

V.H.: Herritarrei eta Traña-Matienara datozenei jaiak errespetuz gozatzeko deia egiten diegu. Bestalde, lerro hauek aprobetxatu gura ditugu Mónica zinegotziari eta udaleko Aitzol langileari eskerrak emateko. Gaur egun, jai batzordean oso giro ona dago, eta hau euren eskerrak da. Mónica asko inplikatzeko den emakumea da, berak ere badaki jai batzordean borondatezko lana egitea zer den eta bihotzez eskerrak eman gura dizkiogu. Momentu honetan jai batzorde polita dugu, gazte batzuk lan egiteko prest gaude, eta aurtengo San Prudentzio jaietan oso ekintza politak izango dira talde honi eskerrak.

PANADERIA MATIENA
OBRADORE PROPIOA

Juan Antonio Unzueta, 2
48220 Matiena - Abadiño
657 592 658 - 94 466 67 73

GARITAONANDIA

ARRAIN FRESCOAK,
IZOZTUAK ETA ITSASKIAK

MATIENA
946 81 87 28 / 663 873 513
Etzerako zerbitzua
622 411 643

EBANISTERIA AGUSTÍN

ETXEKO ALTZARIAK
SUKALDEA ETA BAINUGELA
ERREFORMAK
PROIEKTUAK

Barrio Murueta, 1
Matiena, Abadiño
946 81 26 85
www.ebanisteriaagustin.com

EuroTaller | **Garaje Miguel** **ZURE KONFIANTZAZKO TAILERRA**

ZERBITZUAK
★★★★★ **PROFESIONALAK**

PNEUMATIKOAK
OLIOAK ETA IRAGAZKIAK
AMORTIGUADOREAK
BALAZTAK
BATERIAK
GURPIL-AZALAK
OSAGARRIAK
IBILGAILUEN GARBIKETA

Arzubia Kalea, 10A, PAB1, Matiena Abadiño
94 681 91 61 - www.garajemiguel.com

BAR SANBLAS

Laubideta kalea, 7
Matiena/Abadiño
Tel.: 611 720 182
@bar_sanblas

Harategia «ANE» Urdaitegia

Trañatxoste, 1 behe
48200 Matiena (Abadiño)
946 814 670

ESPEZIALITATEAK
Txorizoa - Odolostea
Bertoko txahala

VONCOUVER
Bar - Cafeteria

Trañabarren Etorbidea, 9
MATIENA
Tel. 94 681 70 39



Iurretako Juan Orobio Goitia institutuko ikasleak. JUAN OROBIO GOITIA



Durangoko institutuko ikasleak antzezlaneko entsegu batean. DURANGOKO INSTITUTUA

Eskualdeko ikasleek antzezlan bihurtu dituzte gerrako umeen testigantzak

Durangoko Institutuko eta Juan Orobio Goitiako ikasleek Loraldian parte hartu dute

Joseba Derteano DURANGALDEA

Loraldia Eskola ekimenak bultzatuta, Euskal Herriko hainbat institututako ikasleek oholtzara eramango dute gerra zibileko umeek bizi izandako sufrimendua. Durangaldean Iurretako Juan Orobio Goitia institutuak eta Durangoko Institutuak parte hartu dute proiektuan. Gai eta estetika beraren barruan, ikastetxe bakoitzak ume baten istorioa landu du. Estreinaldia gaur izango da, Barakaldoko Clara Campoamor aretoan, 19:00etan. Durangaldean ere

izango da antzezlanak ikusteko aukera: maiatzaren 1ean, 19:00etan, San Agustin kultur-gunean.

Juan Orobio Goitia institutuaren kasuan, obra Pedro Gallastegi zaldibartarraren bizipenetan oinarritzen da; bederatzirte baino ez zituen sasoi hartan. Gallastegiren eta bere familiaren eguneroko bizimodua islatzen da hasieran, Zaldibar herrian. Erreketeak herrian sartzeagaz batera, familiak Gernikarantz ihes egitea erabaki zuen. Sortzaileek aurreratu dute amaiera tristea duela, garaiko

beste istorio askoren antzera.

Bestalde, Durangoko institutuko ikasleek Maria Luisa Ruiz Aranaren bizipenetan oinarritutako antzezlanak landu dute. Obrak identitate galdua eta gerraren ondorioz hautsitako familia loturak ditu ardatz; hain zuzen ere, Maria Luisak eta bere familiak gerran galdutako urte biko neba aurkitzeko egindako bilaketa etsia kontatzen du. "Denbora batera, Maria Luisaren nerabezeroan, berak eta familiak administratziara jo zuten arrastoren baten bila, baina sisteman

ez zieten kasurik egin. Obrak desesperazio hori kontatzen du", azaldu du institutuko irakasle den Amaia Gorostizak.

Ikasteko aukera

Izei Irastorza eta Enea Arza Juan Orobio Goitia institutuko 15 urteko ikasleak dira eta antzezlanen parte hartu dute. Irastorzak Pedro Gallastegi zaldibartarraren azalean ipintzeko erronka hartu du, eta antzezlanak gerrako egoera lazarriak hobeto ulertzeko balio izan diola azaldu du.

Antzezlanak antzerkia eta dantza uztartzen ditu eta Enea azken horretan aritu da. Istorioagaz "lotura berezia" sentitu duela dio, zaldibartarra delako: "Pedroren moduan Zaldibarkoa naiz, eta antzezlanean aipatzen diren auzo eta izenak ezagunak egiten zaizkit. Honek guzti honek

pertsonaietan sartzeko eta jendeak zer sentitu zuen ulertzeko balio izan digu, emozioak lantzeko", azaldu du.

Estreinaldiaren aurrean "apur bat urduri" eta "gogotsu" daukela diote. "Inoiz ez gara egon horrelako eszenatoki batean eta uste dut denok urduri gaudela, baina aldi berean gogo handia daukagu bakoitzak daukaguna erakusteko", esan du Arzak. "Eszenatokian hamar minutu irauten duenak atzetik hilabeteetako lana dauka. Ez da klase orduetan bakarrik landutako zeozer, klase orduetatik kanpora ere ordu batzuk eskaini dizkiogu eta lan hori erakusteko gogoz gaude", gehitu du Irastorzak.

Durangoren ondoren, Donostian (maiatzak 8), Gasteizen (maiatzak 15) eta Gernikan (maiatzak 22) erakutsiko dute obra.

GAI LIBREAN



AINHOA OLASO SOPELANA
BEHARGINA

Musuzapietako udaberriko ipuina

Azken eguna genuen hirian. Arratsaldeko zortziak bueltan izango ziren. Garona ibaiaren ertzetik pasiadan genbiltzan apirileko argi ederrena islatzen den orduan. Zubiak alderik alde, sorbeltzak hegan eta luxuzko itsasontzi erraldoi bat harrizko kaian. Ezusteko zauria erromantizazioaren profesionalontzat. Baina eguzkia lagun, oporretan geunden oraindik eta txor-txorrean jarraitu genuen amesgaizto modernoak atzean utzita. Bestelako munduak asmatzea da ezerezari aurre egiteko askotariko formen artean, aukera eraginkorrena. Hiri eder hartako gure balizko bizimoduak elaboratzen hasi ginen orduan. Parean geneukan guztiak apasionatzeko aukera eman zigun, egia esan. Fikzio hartarako inplikazio emozional zein materialak zehaztu ondoren, zinema bihurtutako eliza zaharreko kafetegi batean eseri ginen ipuina musuzapietan idaztera.

"Garona ibaiaren ertzetik pasiadan genbiltzan apirileko argi ederrena islatzen den orduan"

Egunotan Mañaria erreka albora hurbildu naiz arratsalde hura luzatzeko asmoz. Konspiratutako bizimodua oraintasunetik eta hemenkeriatik pentsatzen jarraitu dut baina trasatlantiko bat sartu zait loriaren eta zauriaren artean. Profesionalok, ordea, badakigu udaberriko argia ez dela nolana hiko magia. Mailuki garaia dator, zikoinak kabia indartzen hasiak dira eta konplexutasuna talentu handiz narratzen duen jendea dabil hurbilean. Norbaitek edertasuna zer den galdetuz gero, dudarik gabe horiek seinaltuko nituzke disimulatutako keinu batekin.

Santa Ana plazako harrizko eskaileretan eseri eta zinema hartaz akordatu naiz berehala. Atea itxita duen eliza begiratu dut alderik alde, goi eta behe. Musuzapia atera eta zirriborro bat gehitu diot azkar batean.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.
946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 24

- **ABADIÑO 'Felix Iturriaga'** Abadiñoako txirindulariari buruzko erakusketa. Errota kultur etxean, maiatzaren 10era bitartean.
- **BERRIZ Gar** Jon Garcia Zabalak 'Oraina gezurretan' diskoa aurkeztuko du. Kultur Etxean, 21:00etan.
- **BERRIZ 'Gu ere bagara!'** Getxoko LGTBIQ+ adineko pertsonen bizipenak, errealitateak eta ahotsak biltzen dituen erakusketa, Ines Bermejo artistaren eta Julen Nafarrete kazetariaren eskutik. Berrizko Kultur Etxean, maiatzaren 19ra arte.
- **DURANGO Erakusketa** Durangaldeko Artisten elkarteko kideen lanak. Ezkurdi aretoan, maiatzaren 3ra bitartean.
- **DURANGO 'Itzali eta piztu'** bertso saio elektronikoa. Manex Pagola eta Aner Peritz musikariak arituko dira, Nerea Ibarzabal, Aroa Arrizubieta, Miren Artetxe eta Ekhiñe Zapiain bertsolariekin batera, Ainhoa Urien gidari dutela. Plateruenean, 20:00etan.
- **DURANGO Bartolome Ertzilla Orkestra Sinfonikoaren** kontzertua. San Agustin kulturgunean, 19:30etan.
- **ELORRIO 'Saeta'** Javier Aranda aktoreak aurkeztutako antzezlanak. Arriola antzokian, 20:00etan.
- **ELORRIO Erreka kaleko jaiak** Buruhandiak, plazan, 15:00etan. Pilota partiduak, frontoian, 18:00etan. Akorde Music Experience, plazan, 18:30etik 21:30era.
- **ELORRIO Rances + MRS. Klams** Kontzertua. Gaztetxean, 23:00etan.
- **IURRETA 'Xirristi mirristi'** Helduentzako ahozko narrazioa Erica Liqueteren eskutik. Bibliotekan, 19:00etan.
- **IURRETA Auzolana** Abadetxean, 17:00etan.
- **IURRETA San Marko jaiak** Txalapartak girotuta,

Donien Atxa altxatuko dute, iluntzean. Parte hartzaileei bakailao erreka emango zaie. Jarraian, igel txapelketa. Oromiño auzoan.

- **ZORNOTZA 'Ura eta kolorea'** Ruben Alvarez 'Rubencio'-ren akuarelek osatutako erakusketa. Zelaieta Zentroan, apirilaren 30era bitartean.
- **ZORNOTZA 'Xerka'** Sexilioari buruzko argazki erakusketa. Zelaieta zentroan, apirilaren 30era arte.

ZAPATUA 25

- **BERRIZ 'Saeta'** Javier Aranda aktoreak aurkeztutako antzezlanak. Berrizko Kultur Etxean, 19:00etan.
- **ELORRIO Erreka kaleko jaiak** Herri kirolak, frontoian, 12:30etik 14:00etara. Dantzak plazan, 18:00etatik 21:00etara. Mutil Gazteak txaranga, 19:00etan.
- **ELORRIO DJ Kene + DJ Patxakeo** Musika. Gaztetxean, gauerdian.
- **GARAI Dastatzea** Garai Garagardo & Kontserbak antolatutako dastatzea. Fabrikara bisita, dastatzea eta mokadua, Bibiana Bakana grad showak girotuta (lekua hartzeko: garaikontserbak@gmail.com)
- **IURRETA San Marko jaiak** Meza, 12:00etan. Jarraian, herri bazkaria. Briska txapelketa, 17:00etan.
- **ELORRIO Erreka kaleko jaiak** Maiztegiko umeen dantza erakustaldia, 18:00etan. Tortilla txapelketa, 18:30ean (aurkezpena, 20:30ean). Luhartz plaza taldeagaz erromeria, 20:30ean (afalostean jarraituko du). Gauerdia inguruan sorpresa. Oromiño auzoan.
- **MALLABIA San Jurkiak** Meza, 11:00etan. Mallabiko Gazte Alai dantza taldearen saioa, 12:00etan. Gero, umeentzako jolasak: oilar harrapatzea eta lapiko apurtzea. Kafe eta txorizo pintxoak eskainiko dituzte.



ATX TEATRO

DURANGO Antzerkia Jon Gerediagak eta Atx Teatroa konpainiak *Marmarra* antzezlanak aurkeztuko dute, zapatuan, Durangon. Oholtzara igoko diren aktoreen artean Aitor Etxarte durangarra dago. San Agustin kulturgunean, apirilaren 25ean, 19:00etan.

Auzo bazkaria, 14:30ean, Iruñe Basagoiti eta Ibai Amillategi bertsolariek girotuta (ermitan). Agarre osterak umeentzako lasterketa, 17:30ean. Begi Bide taldearen kontzertua, 18:30ean. Berano Txiki auzoan.

- **MAÑARIA Tailerrak eta umeentzako ekintzak** Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekintzak. Plazan edo frontoian, eguraldiaren arabera, 11:00etatik 13:00etara.
- **MAÑARIA Bisita gidatua** Elizako organoa ezagutzeko bisita gidatua, zuzeneko musikagaz, 11:00etan.
- **ZORNOTZA 'Tximeletaren bidaia'** Ipuin kontaketa, Manex Beristain ipuin kontalariaren eskutik. Zelaieta zentroan, 12:00etan.
- **ZORNOTZA 'Kimu'** Marie de Jongh konpainiak aurkeztutako umeentzako antzezlanak. Zornotza Aretoan, 17:30ean.
- **ZORNOTZA Durangaldeko Ezpatadantzari Eguna** Dantza erakustaldia plazan, 18:00etan (euria bada, Zelaietako pilotalekuan). Kittuk berotuko du giroa, 20:30ean.

DOMEKA 26

- **BERRIZ 'Atearen bestaldean'** Hika Teatrok

aurkeztutako umeentzako antzezlanak. Berrizko Kultur Etxean, 12:30ean.

- **DURANGO 'Durango kantari'** Eingo taldeagaz, Merkatu Berrian, 12:30ean.
- **DURANGO 'Zepo, zapo'** Markelife konpainiaren lana. San Agustin kulturgunean, 18:00etan.
- **ELORRIO Erreka Kaleko jaiak** Puzgarriak, plazan, 11:00etan. Artisau eta Sortzaileen Azoka, Urarkan.
- **IURRETA San Marko jaiak** Iurretako Mikel Deuna dantza taldea, 12:30ean. Azoka, goizean zehar. Gero, kantu-dantza bazkaria. Errifen zoketaz eta Donien Atxa botata agurtuko dituzte jaiak, Oromiño auzoan.
- **ZORNOTZA Ganadu eta nekazaritza azoka.** III. Ganadu eta Nekazaritza Azoka, 10:00etan, tritilariek girotuta. Euskal Labeldun produktuen dastatzea ere antolatu dute. Ardi mozketa erakustaldia Mikel Etxebarriaren eskutik, 12:00etan. Herri kirol erakustaldia, 13:00etan: Jon Gisasola eta, Aritz eta Izei Abendibar harrijasotzaileak eta Irati Astondoa aizkolaria. Boroa auzoan.

MARTITZENA 28

- **ZORNOTZA 'Bi hitzen indarra'** Euskadiko

nekazaritza ekologikoaren azokaren *Hope: Garaiz gabilta* dokumental sailaren 2. saioa. Ondoren, mahai-ingurua. Ekolurraren egoitzan (Jauregibarria), 17:00etan.

EGUAZTENA 29

- **ZORNOTZA Berbalidia** Toti Martinez de Lezea. Zelaietako liburutegian, 18:30ean.

BARIKUA 1

- **DURANGO 'Ezer ez delako amaitzen'** Antzerki amateur Intxorta 1937 & Loraldia Produktioak-ek bultzatuta aurkeztutako lana. San Agustin kulturgunean, 19:00etan.
- **DURANGO Jaiak** Jaizaleko txistularien kalejira 10:30ean. Bizikleta buelta umeentzat eta artisautza azoka, 11:00etan (euririk ez bada). Kriskitin dantza taldea, 12:00etan. Bertso saioa, 13:00etan: Eneko Abasolo 'Abarkas', Erika Lagoma eta Gorka Lazkano. Gai-jartzailea: Unai Iturriaga. Tute txapelketa, 16:30ean. Paulinoren omenez. Txokolatada, 17:30ean. Tor magoa, 18:00etan. Igel txapelketa, 19:00etan. Errota taldea, 21:00etan. Aramotz auzoan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Calle Málaga
Domeka 26: 19:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

Michael

Barikua 24: 18:00, 20:30.
Zapatua 25: 16:30, 19:00, 21:30.
Domeka 26: 16:45, 19:30.
Astelehena 27: 17:45, 20:15.
Martitzena 28: 17:45, 20:15.
Eguaztena 29: 19:00.
Turno de noche
Barikua 24: 18:00, 20:30.
Zapatua 25: 19:30, 21:30.
Domeka 26: 19:30.
Astelehena 27: 18:00, 20:15.
Martitzena 28: 18:00, 20:15.
Eguaztena 29: 19:00.
Kraken: El libro negro de las horas
Barikua 24: 18:00, 20:30.
Zapatua 25: 19:00, 21:30.
Domeka 26: 19:30.
Astelehena 27: 18:00, 20:15.
Martitzena 28: 18:00, 20:15.
Eguaztena 29: 19:00.

Kraken: El libro negro de las horas

Barikua 24: 18:00, 20:30.
Zapatua 25: 19:00, 21:30.
Domeka 26: 19:30.
Astelehena 27: 18:00, 20:15.
Martitzena 28: 18:00, 20:15.
Eguaztena 29: 19:00.
Super Mario Galaxy (3D)
Zapatua 25: 17:30.
Domeka 26: 17:15.
Maracuda
Zapatua 25: 17:00.
Domeka 26: 16:45.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

La Grazia

Zapatua 25: 20:00.
Domeka 26: 20:00.
Astelehena 27: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Calle Málaga

Barikua 24: 20:00.
Domeka 26: 20:00.
Astelehena 27: 20:15.
Taffiti eta lagunak
Domeka 26: 17:00.
Si pudiera te daría una patada
Martitzena 28: 20:15.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

iA



GUARDIAKO BOTIKAK

APIRILAK 24, BARIKUA

09:00-09:00

Irigoiñ, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

APIRILAK 25, ZAPATUA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17- Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

APIRILAK 26, DOMEKA

09:00-09:00

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

APIRILAK 27, ASTELEHENA

09:00-09:00

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

APIRILAK 28, MARTITZENA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

APIRILAK 29, EGUAZTENA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

APIRILAK 30, EGUENA

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak daude zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



Gari Velerdas
Zorionak Berrizen bizi dan Gari Velerdasi bere 6. urtegunean, bere anaia Lier eta Iruñean bizi den lehengusina Izaroren partez. Eta batez ere, amama Maribiren partez.



Erlea Velerdas
Zorionak Iruñean bizi dan Erlea Velerdasi bere 45. urtegunean bere alaba Izaro eta senar Eihanderen partez. Baita bere loiba Gari eta Lierren partez ere. Eta batez ere, ama Maribiren partez.



Ricardo
Ricardok urteak egin berri ditu. Zorionak zure familiaren eta laguneren partez. Ondo pasau.



Uxue Mantzidor
Apirilaren 22an Uxue Mantzidorren urteguna izan zan. Xuban, Katrin, Lur eta Gaizkan partez mosu handi-handi bat. Maite zaitugu, amatzu!



Aratz
Zapatuan Aratzek 15 urte egiten ditu. Zorionak, ama, Jabi, Haizea, Amets, Maguie, Oreo, Goku eta Booren partez.



Bego
Zorionak, Bego! Egun zoragarri bat pasa eta behar den bezala ospatu herriko jaietan!

GOZATU GOZOTEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

661 401 400

Gozatu Gozotegia

gozaturgozotegia



Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean gozatu gozotegiko **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Urte askotarako!

Zorion-agurra jartzeko, hiru bide:

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
- Mezua bidali agenda@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.
- Etorri zaituz Anbotoren ordezkariatzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

IBARRETXE KULTUR ETXEAN
ANTZERKIA BULTZATUZ 2026

Maiatzak 8
18:00

BIZIA

Lehoi erregea

Haurrentzat

SARRERAK
Umeak 1€ / Helduak 3€
Sarrerak hartzeko Ibarretxe Kultur Etxean

BERRIZKO EKITALDIAK

MAIATZA

10 IGANDEA
Zinema: Amargo Navidad
19:00 Kultur Etxea

17 IGANDEA
Zinema: Maracuda
17:00 Kultur Etxea

24 IGANDEA
Zinema: Todo lo que fuimos
19:00 Kultur Etxea

INMOBILIARIAK

 <p>ETXETXO INMOBILIARIA F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO www.inmoetxetxo.com</p>	 <p>AMBOTO INMOBILIARIA Sanagustinalde, 4 - 1.º ezk. - 48200 DURANGO</p>	 <p>ISD Inmobiliaria del Duranguesado Askatasun etorb. 10 - DURANGO - 946 816 666 www.inmoduranguesado.com inmoduranguesado@gmail.com</p>	 <p>Fernando Uribe AGENCIA INMOBILIARIA Barrenkalea, 15 behe - DURANGO Tel: 946 816 423 - www.fernandouribe.es</p>
 <p>C.E.E= G 320.000 €</p>	<p>ETXEBIZITZAK SALGAI</p> <p>DURANGO ZUMALAKARREGI: 235 m2. Durango erdigunean. Zoragarria. MONTEBIDEO: Berriztatze. 175m2, 6. solairuan. Balkoia. 60 m2, 7. solairuan. Ikuspegi ederrak. MONTEBIDEO: 150 m2. 4 logela. Handia. 2 kotxerentzako garaje itxia. FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 180 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. 3 balkoi. Berriztatze. FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, egongela balkoiarekin, komuna eta sukaldea. 100 m2-ko terraza handia. GOIENKALEA: 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia. KURUTZIAGA: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatze. BARRENKALEA: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua. IURRETA DANTZARI: 3 logela. Argitsua. 145.000 €.</p> <p>LURSAILAK SALGAI URRUTXUA: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.</p>	 <p>C. E. E.: E. 148.000€.</p>	<p>BERRIAK</p> <p>DURANGO ZABALE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Igogailua eta 2 kotxerentzako garajea. 375.000 €/ E.E.Z=E</p>
<p>KOMENTUKALE 125m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza.</p>  <p>C.E.E= F 140.000€</p>	<p>BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI IURRETA: Fauste auzoa. Bifamiliarra. Ikuspegi ederrak. Leku onean kokatua. Prezio ezin hobea. IURRETA: Baserri erdia saltzen da San Markos auzoan. Teilatua berriztatua. Gainontzekoa berriztatze. ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m2. Berriztatze. Lursailarekin. Ganbara. BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatze. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz. MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.</p>	<p>DURANGO SAN FAUSTO 47,66m2. Egongela-sukaldea (jantzia), jangela, 2 logela eta komuna durbarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Aparkatzeko erraztazuna. ITE-a pasatutakoa.</p>  <p>C. E. E.: G. 179.000€.</p>	<p>DURANGO ANDRA MARI: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. 240.000 €/ E.E.Z=E igogailu obra erosleek gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero 270.000 €. BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. 350.000 € / E.E.Z=F E.BUSTINTZA KIRIKIÑO KALEA: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. 150.000 € E.E.Z=G GOIENKALE KALEA: Logela, sukaldea egongelarekin eta komuna. Igogailua. 160.000 € / E.E.Z=F SAN INAZIO AUZUNEA: 2 logela, sukalde-egongela eta 2 komun. Etxebizitza berria. 280.000 € / E.E.Z=A ZUMAR PARKEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 terraza. Igogailua. Garajea eta trastelekua. 400.000 € / E.E.Z=E</p>
<p>IURRETA 72 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.</p>  <p>C.E.E: F 195.000 €</p>	<p>BULEGOAK ALOKAIRUAN</p> <p>ABADIÑO 30 m2-tik gorako bulegoak. 350 -tik hasita. Argia eta wifia barne.</p> <p>DURANGO ERMODO KALEAN. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.</p>	<p>DURANGO FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 49,80 m2. Egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. ITE-a 2025.urtean pasatutakoa. Ondoko eraikinean garajea aukeran + 8.000 €.</p>	<p>ABADIÑO DENDARIKO: Zaharbertzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. 215.000 €. TXINURRISOLO KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. 180.000 €/ E.E.Z=E</p>
<p>IZURTZA 261m2. Pabilioi industrial. Pabellón industrial de 261 m2. 10,50 m2-ko altuera du. Aire-instalazioa. Karga-jasogailua eta polipastoa.</p>  <p>11.000 €</p>	<p>LOKALAK ALOKAIRUAN ALDE ZAHARREAN, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.</p> <p>LOKAL INDUSTRIALA SALGAI MATIENA: 460m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia. ELORRIO: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.</p>	<p>DURANGO ANTSO ESTEGIZ 60,62 m2. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du. Argitsua. Erdigunetik gertu. ITE-a pasatutakoa. Berrikuntzak behar ditu.</p>  <p>C.E.E:F. 198.000 €.</p>	<p>ATXONDO ARTEKALEA, 13: Konpontzeko baserri lursailarekin. 300.000 €.</p> <p>BERRIZ MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze baserri lurzorua. LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 € EITUA: Berreraikitze baserri lursailarekin. LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €</p>
<p>SAN INAZIO AUKERA. Garajea.</p>  <p>C.E.E.= F 470.000€</p>	<p>LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI</p> <p>BERRIZ BERRIZ: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.</p>	<p>BERRIZ AGIRRE LEHENDAKARIAEN PASEALEKUA 85m2. Halla, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua durbarekin. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialde-mendebaldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.</p>  <p>C. E. E.: G. 187.000€</p>	<p>GARAI MOMOTIO AUZOA: Etxebizitza eraikitze lursailak. Aukera ezberdinak.</p> <p>IURRETA ZUBIAURRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. 198.000 € / E.E.Z=F</p> <p>GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI ALLUITZ: Garaje itxia. 24.000 €. KURUTZIAGA: garajea. 18.000 €. KURUTZIAGA: Garaje itxia 22.000 €. MADALENOSTE: Garaje itxia eta trastelekua. 42.000 €.</p>
<p>BASERRIA BERRIZTATUTA. 436m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. Garaje itxia. 4 hektareako lursaila.</p> 		<p>DURANGO ASTIGAR (2024. urtekoa). 242,50 m2. Sotoa: 2 kotxerentzako garajea, sukalde-bokoa, komuna eta despentsa. Beheko solairua: halla, egongela, sukaldea eta komuna. Terraza. 40 m2-ko lorategia. Lehenengo solairua: 3 logela horietatik bat komunarekin eta beste komun bat. Bigarren solairua: espazio diafanoa logela, komun pribatua eta terraza. Ezin hobea. Igogailua.</p>  <p>C. E. E.: Bidean. 700.000€.</p>	<p>LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI / ALOKATZEKO DURANGON SALGAI ANDRA MARI KALEA: 76 m2-ko lokala. Salgai: 90.000 € / Alokagai: 800 € hilean / E.E.Z=E BARANDIARAN KALEA: 50 m2-ko lokala. 800 € hilean / E.E.Z=Bidean. IBAIZABAL AUZUNEA: 60 m2-ko lokala. 240.000 € / E.E.Z=E KOMENTU KALEA: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. 55.000 € / E.E.Z=F SAN MARTINPE ATARIA: 12 m2-ko lokala. 25.000 € / E.E.Z=F</p>

Bueltatzea



MARKEL
SANCHEZ ZELAIA

Lagun bati esan nion berak hainbeste maite duen leku horretara bueltatzen denean negar egingo duela, 10 urte ez direla alferrik pasatu, eman zizkidan erreferentzia asko ez direla jada existitzen. Hori esan nion, berak dena denboran estatiko mantentzea esperoko balu moduan.

Esaten dute zoriontsu izan zaren lekuetara ez dela bueltatu behar. Agian desberdinu behar-ko genuke zer den bueltatzea eta zer berriro joatea. Bueltatu denok bueltatzen garelako argazkietara, gordetako email edo elkarrizketetara, lagun artean oroitzen ditugun pasadizoetara. Nik neuk, street view'n hiri bateko duela 10 urteko argazkiei begira neure burua aurkitu nuen, ez kaleko argazkian, baizik eta pantailaren isladan.

Bueltatzea geure gezurrik sinistea da, bertan goxo egotea, pentsatzea norbere Odiseok Penelope bat duela zain, 20 urte pasatu ez balira lez, berdin-berdin.

Etengabe berritu beharra dagoen garaiotan bueltatzea lasaigarria da, helduleku bat. Izan daiteke lagunarteko kode bat, film bat, haurtzaroko ipuin bat edo abesti baten bidez, baina bueltatzen gara norabait. Liburu baten pasarte edo poema bat ere badira lekuak nora bueltatzen garen.

Eta nik gurako nuke idatzi zutabe bat, horrelakoa, noizbait norbait bertara bueltatuko dena, eta hemen elkartu.

"Belar dendan bezeroari aholku ematen ahalegindu gara, beti ere errespetuz"

EMILIA ARRIETA MADARIAGA ETA ANA ARAZABALA ARRIETA OSASUN ETXEA

Aitziber Basauri DURANGO

Osasun Etxea belar dendak mende erdia egin berri du, Durangon. Emilia Arrietak (Durango, 1944) garaiko delicatessen denda modura zabaldu zuen establezimendua, baina handik urtebetera norabidez aldatu eta osasunerako produktuak saltzen hasi zen; tarte batean, zurezko jostailuekin batera. Ana Arazabala (Durango, 1970) orain 35 bat urte batu zen proiektura. Antzinako erremedioen lagun diren ama-alabak oso eskertuta daude urteotan bezeroek eurengan ipinitako konfidantzagaitik.

Emilia, bizi guztia eman duzu mostadorearen atzean.

Emilia Arrieta: Bai, oso gustura egon naiz, gainera. 17 urte gaz eskola utzi eta aitagaz zapata dendan lanean hasi nintzen. Gaztetan amagaz odolosteak egiten ibilitakoa ere banaiz, familiako harategian saltzeko. Durangon lehenengoa izan nintzen belar denda zabalitzen. Gure amak alergia zeukan eta horrek sortutako enbarazuak arintzeko produktu batzuk hartzen zituen. Durangon ez zegoen horrelakorik lortzeko lekurik, eta denda halako produktuetara bideratzea erabaki genuen. Beti ondo joan zaigu eta aurrera egin dugu.

Zein da sekretua negozioa hainbeste urtean zabalik izateko?

E.A.: Bezeroagaz atsegina izatea. Bizi osoan pozik etorri naiz lanera. Askok gustatu zait mostadoreko lana, jendeagaz hartu-eman. Bezero izandakoek kalean



Emilia Arrieta eta Ana Arazabala.

ikusten nautenean kasu egitea, musu bat ematera hurbiltzea... horretxek poztzen nau gehien. Alabak lehengo bezeroak mantendu izana polita da.

Fisika ikasketak utzi ondoren, administrari ikasketak amaitu zenituen. Hala ere, argi izan zenuen belar denda zela zure tokia, Ana.

Ana Arazabala: Bai. Amagaz 10 bat urte egin nituen. Gero, Ainhoa hartu genuen. Ia 20 urte daramatza gugaz. Guretzat osasuna izan da beti garrantzitsua, eta bezeroari aholku ematen ahalegindu gara, beti ere erres-



petuz. Batzuetan ez da erraza izaten, baina jendeak estimatzen du laguntza hori.

Erostera ez ezik, aholku bila doa asko? Hori da duzuen balio erantsia saltoki handi edo Interneten aurrean?

E.A.: Jakina! Horiek ez dituzte ematen guk ematen ditugun azalpen eta aholkuak. Ordu asko eman dut belar dendan, baina asko gozatu dut egindako lanagaz. Belar denda konfesatoki bat ere izan da. Pazientzia handia izan dugu beti, eta bezeroari maitasun handiz eman dizkiogu aholkuak. Horregaitik jarraitu dugu hainbeste urtean.

A.A.: Gainera, 37 bat urtean mediku bat izan dugu gugaz, astean 12 ordutan, kontsulta ematen. Zorte izugarria izan dugu beragaz. Nik neuk mordoia ikasi dut beragaz, eta beti zintzo jokatu dugu. Izan ere, hemen ez dugu miraririk egiten. Lagundu ezin diogunean, bezeroa medikuarengana bidaltzen dugu.

Familia bereko zenbait belaunaldi izan duzue bezero.

A.A.: Bai. Eta hori polita da.

Zelakoa izan da urteotako bilakaera?

A.A.: Lehen, magnesioa, burdina eta sendabelarrak eskaintzen ziren. Gaur egun, askotariko prestakinak egiten dira, espezifikagoak. Baina bezeroak eza gutza handiagoa du orain. Horretan igarri dut aldaketarik handiena.

Gogoan duzuen momenturen bat?

A.A.: Pandemia garaia. Oso gogorra izan zen, baina asko laguntzeko aukera izan nuen.

E.A.: Ezin dut bat aukeratu.

Belarren artean zein da izarra?

A.A.: Ashwagandha, dudarik barik, estres fisiko eta emozionalerako. Gero, magnesioa, eta Omega 3 eta Omega 7. Eztarri-rako, malba, kamamila mingotsa eta ezkaia ere ondo saltzen dira.

Motzean

50 urte ospatzeko pastela?

Biak: Elorrioko mojen hostopil pastela.

Belar bat?

A.A.: Pasiflora.

E.A.: Malba.

Kamamila ala ezki-lorea?

A.A.: Kamamila.

E.A.: Kamamila anisagaz.

Usain bat?

A.A.: Limoiarena.

E.A.: Eukaliptoarena.

Smurfit
Westrock
Central Forestal

+55 urte Euskadiko
pinudiak zaintzen

Smurfit
Westrock
Nervión

Etorkizun hobe baterako
enbalaje iraunkorrak